ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2009ko irailaren 28a > Astelehena > VII. urtea > 247. zenbakia > Euro 1
www.goiena.net

**"Emozionalki nahiko galduta gaude, analfabetoak izango bagina bezala da"**

**Pepa Bojo**
Psikologoa > 08



**ARGITALPENAK**
**Danbakako irabazle The Wet Band diskoa grabatzen dabil** > 11

**ARETXABALETA**
**Abesbatzaren ekitaldiarekin, bukaera borobila jaiei** > 12-13

**ARRASATE**
**Eskualdeko Ospitalean geratuko da Lurraldeko autobusa laster** > 14

**ARAMAIO**
**Bularretik Mintzora kanpaina aurkeztu dute** > 20

**POLITIKA** > EKITALDIAK

# Debekuekin lotuta, tentsio handia eta atxiloketak

**AHALEGINA**
Arrasaten iragarritako ekitaldi guztiak galerazteko ahalegin sutsuak egin zituen Ertzaintzak

**ATXILOTUAK**
Lau pertsona atxilotu zituzten Aretxabaletan jaietan; epaileak deitu artean askatu dituzte > 04-05



**IRABAZLEAK** Jean Paul Iriken, Joxe Mari Jauregi eta Marcel Uhalde podiumean txakurrekin. JOSETXO ARANTZABAL

## 50. edizioan ere, Jauregi eta 'Bizkor' garaile

"Ez nuen uste irabaziko nuenik; bat irabaztea zaila da eta sei irabaztea zailagoa, baina azkenean ondo moldatu gara, lan ona egin dugu", zioen Joxe Mari Jauregi illarduiarrak Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakurren 50. Txapelketa irabazi eta berehala.

Bestalde, txapelketaren 50. edizioaren harira, antolatzaileek txapelketako orain arteko irabazleak omendu zituzten. > 29

**EUSKARA** > MINTZALAGUNA

## Zaharretik berrira, euskaran berriketan

Topagunetik Euskara Elkarteen Federazioko mintzapraktika batzordetik kanpaina abiarazi dute. *Gurean Nahi dozu?* edo *Gura dozu?* erabili dituzte kanpainarako lelo moduan. Hala, ibarrean halako hiru proiektu daude: Aretxabaletan Barriketan, Arrasaten Zaharberri eta Bergaran Berriketan. Egunerokotasunean euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenek ohiko hizkuntza euskara dutenekin hitz egiten dute taldeka. > 03

**AUTOAK** > UDANA

## Zabaletak irabazi du Mendiko txapela

Aitor Zabaleta nagusitu zen zapatuan Udanako mendatean, zazpi urteren ondoren berreskuratu den lasterketa ospetsuan. Garaipenarekin bergararrak matematikoki lortu du Euskadiko Mendiko Txapelketa. Lasterketa amaieran aitortu zigun garaipena lortzeko faboritoa izan arren, gogor egin behar izan zuela lan proba irabazteko. Izan ere, Ruben Nogueiras *etxeko* pilotuak zail jarri zizkion gauzak Zabaletari. > 22-23

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-05
**Ekonomia** > 06
**Auzoak** > 07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-28
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Denbora-pasak** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39



Maider Unda. GOIENKARIA

**BORROKA** > TXAPELKETA

## Undak, brontzea Danimarkan

Maider Unda aramaioarrak brontzezko domina eskuratu du Herning-en, Danimarka, jokatu duten borroka libreko munduko txapelketan. Final laurdenetan galdu arren, bi borrokaldi irabazita lortu du domina Undak. > 26

Iritsi dira iraileko opariak! Badago zuretzat?

Zoaz 22. orrialdera




ZABALIK
75 dendatik eta 200 produktutik gora.
merkatua.net Debagoieneko denda handiena. Etxetik bertatik eskura.
MERKATUA.net
Debagoieneko denda

**EUSKARA** > MINTZALAGUNA EKIMENAK

# Zaharretik berrira euskaran barriketan edo berriketan

**MINTZALAGUNA** Egunerokotasunean euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenek ohiko hizkuntza euskara dutenekin hitz egiten dute taldeka

**HIRU PROIEKTU** Aretxabaletan Barriketan, Arrasaten Zaharberri eta Bergaran Berriketan egitasmoen barruan sortzen dira harremanak

**ASTEAN BEHIN** Talde gehienak astean behin elkartzen dira kafea hartzeko edo paseatzera joateko eta ordubetez jarduten dute euskaraz berbetan

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Mintzatu, hitz egin, berba egin, berriketan edo barriketan jardun… modu askotara esan daiteke, baina funtsa bera da denetan eta, gainera, euskaraz egitea da oinarria. Mintzalaguna egitasmoaren helburua da euskara ikasten dihardutenek, ikasi dutenek edo jakin arren egunerokotasunean euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenek ohiko hizkuntza euskara dutenekin hitz egitea. Horretarako, gurean hainbat egitasmo daude abian: Aretxabaletan Barriketan, Arrasaten Zaharberri eta Bergaran Berriketan.



KAFEA HARTUZ Lurdes, Josune, Visi eta Fermin tabernan elkartzen dira eta euren gauzak euskaraz partekatzen dituzte. JARDUN

**ZEINENDAKO?**

Hizkuntza bat ondo ikasteko modurik onena erabiltzea da eta proiektu horrek ziurtatzen du astean ordubetez gutxienez euskaraz egitea. "Azkenaldian jende asko etorri da, umetan euskara zekitenak eta urte askoan hitz egin gabe egon ostean berreskuratu egin nahi dutenak", esan digu Arizabaletak.

Aretxabaletako Gurutze Larrinagaren esanetan, "batzuek euskaltegian urtetan ikasten jardun arren, gero ez dute erabili eta ohitura hartzeko eman dute izena. Gainera, euskaltegian ikasi arren, euskalkia ere ikasi nahi dute apur bat eta herriko euskaldun zaharrekin horretarako aukera daukate".

Laguntzaileen lana azpimarratu dute arduradunek; Josune Alberdi boluntarioaren esanetan: "Euskaldunok aukera eman behar diegu zailtasunak dituztenei eurekin berriketan eginez".

Arrasaten Gurasolagun egitasmoa ere abian jartzekoak dira, gurasoak euskaraz berba egiteko elkartuko dituen proiektua. "Adin bertsuko seme-alabak dituzten gurasoak elkartu nahi ditugu euskaraz berba egiteko", esan digu Zaharberriko Maitena Aranak.

**BESTE ESPARRUETARA ZABALDU**

Astean ordubeteko hizketaldiak izaten dituzte, baina egitasmoon helburua da horretara mugatu gabe beste esparru batzuetan ere euskara erabiltzea. "Bada orain etxean ere amarekin eta alabarekin euskaraz berriketan egiteko aurrerapausoa eman duenik eta astean ordubeterekin nahikoa ez eta beste talde batean ere izena eman nahi duenik. Konfiantza hartzen dutenean askeago jarduten dute", esan digu Berriketaneko arduradunak.

Zaharberri egitasmoaren arduradun Maitena Aranak esan digu jendea oso gustura dagoela egitasmoarekin: "Badira taldeak urte askotan proiektuan parte hartu ostean, orain lagun talde izatera pasa direnak eta euren arteko harremanean, noski, euskaraz egiten dute. Euren artean sortzen den konplizitatea eredugarria da".

**HIRU-LAU LAGUNEKO TALDEAK**

Arrasaten jadanik 14 talde osatu dira; Bergaran iaz 18 izan ziren; eta Aretxabaletan bederatzi. Gehienak kafea hartzeko edo paseatzeko elkartzen dira hiru edo lau laguneko taldeetan. "Iaz sei laguneko talderen bat osatu genuen eta jende larregi izango zen errezeloa geneukan arren, ikusi dugu ez dela hainbesterako. Hiruko taldean batek kale eginez gero arriskua egoten da beste biak ere ez elkartzeko. Talde handietan bat faltaz gero ez dago arazorik", esan digu Larrinagak.

Asteroko jardunez gain, ekintza bereziak ere egiten dituzte mintzalagunek: irteerak, afariak, kultura ekintzak… Horrela, beste mintzalagunak ezagutzeko aukera ere izaten dute.

Hortaz, astean ordubetez euskaraz berba egiteko astia eta gogoa dutenak gustura hartuko dituzte ekimenen bultzatzaileek.

## NOLATAN HASI ZINEN MINTZALAGUNA EGITASMOAN?



**Lorea Iturrikastillo**
Barriketaneko partaidea

"Ez neukan aukera askorik euskaraz hitz egiteko. Orain hiru lagun elkartzen gara, euskaldun zahar bat eta bi ikasle, eta ondo moldatzen gara. Paseoan goazen bitartean euskaraz hitz egiten dugu. Gainera, orain, lagunekin eta familiakoekin ere lasaiago egiten dut euskaraz. Hortaz, Barriketanek lagundu egin dit".



**Jose Migel Ortigosa**
Berriketaneko partaidea

"Aspaldi ikasi nuen euskara eta interesa nuen maila hobetzeko. Laguntzaile batekin elkartzen naiz eta gela batean zein paseoan denetariko gaiez jarduten dugu. Hiztegiari ere errepasoa ematen diogu noizean behin. Berriketan egitasmoko gainontzeko partaideekin antolatzen diren ekintzetan ere gustura hartzen dugu parte".



**Jose Luis Lizarralde**
Berriketaneko laguntzailea

"Erretiroa hartu eta zerbait egiteko gogoa nuen. Egitasmoa denbora-pasarako ez ezik euskarari laguntzeko modua ere bada. Nire taldekidea gogo handiz etortzen da eta gustura jarduten dugu berriketan. Astean ordubetez elkartzea da oinarria, baina beste noizbait ere elkartu izan gara eta berriketan jardun biok".



**Lola Caamaño**
Barriketaneko partaidea

"Euskaltegian jasotzen dugun euskara eta kalekoa ezberdinak dira eta Barriketan interesgarria da entzumena kaleko hizkerara ohitzeko. Gure taldean dagoen euskaldun zaharra oso berritsua da eta euskara garbia egiten du. Ordubete pasa beharrean askotan bi ere ematen ditugu kafea hartuz hitz egiten".

## IZENEMATEA

Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko mintzapraktika batzordetik kanpaina egin dute. Gurean *Nahi dozu?* edo *Gura dozu?* erabili dituzte kanpainarako lelo moduan. Egunotan hainbat mediotan zabalduko dute jendeak izena eman dezan.

**> BARRIKETAN (ARETXABALETA)**
Udaleko Euskara Zerbitzuan, Udal Euskaltegian edo Loramendi elkartean.
Telefonoz: 943 71 21 68.

**> ZAHARBERRI (ARRASATE)**
AED elkartean, Udal Euskaltegian edo AEK Euskaltegian.
Telefonoz: 943 77 12 28

**> BERRIKETAN (BERGARA)**
Jardun elkartean, Udaleko Euskara Zerbitzuan, Udal Euskaltegian edo AEK Euskaltegian.
Telefonoz: 943 76 36 61.

**POLITIKA** > EKITALDIAK

# Presoen irudien gaineko debekuekin lotuta, atxiloketak eta tentsio handia ibarrean

## Presoen eta Arriaranen aldeko ekitaldiak ekiditzen saiatu ziren

## Aretxabaletako jaietan ondoeza sortu zuen lau herritarren atxiloketak

**I.BARANDIARAN**> ARRASATE
Eguenean EAEko Auzitegi Gorenak baimendu egin zuen Etxerat elkarteak Arrasaten euskal presoen alde aurreikusitako kontzentrazio isiletan presoen argazkiak erakustea.

Eguen arratsaldean, berriz, Ertzaintza Arrasateko bost tabernetara sartu zen han zeuden presoen argazkiak kentzera.

Hala, baina, egubakoitz eguerdian, Audientzia Nazionalak bat egin zuen Jaurlaritzako Barne Sailarekin eta debekatu egin zituen Arrasaten Etxeratek deitutako kontzentrazioak (egubakoitzekoa -hilabeteko azken astekoa-, astelehenekoa eta asteartekoa) eta baita Pakito Arriaran gogoratzeko herri berean El Salvadorren Lagunak elkarteak zapaturako antolatutako ekitaldiak ere.

**NOBENAIXUAN, TENTSIOA**
Egubakoitzean hilean behin egin ohi den kontzentrazioaren leku eta orduan, Arrasateko Herriko Plazan, Ertzaintzaren sei furgoneta eta komunikabide ugari batu ziren.

Ordu berean, hainbat eta hainbat herritar San Juan Bataiatzailearen eliza azpian Maritxu Kajoiren Nobenaixue ospatzen zebiltzan. Ertzainek horiek guztiak inguratu eta tentsio uneak bizi izan ziren: hainbati Euskal Presoak Euskal Herrira leloa zuten banderolak kendu, bi herritar identifikatu eta batzuei borrakolpeak eman zizkieten. Azkenean, Ertzaintzak alde egin zuen eta Nobenaixuaren ospakizunak jarraitu zuen.

**HERRITARREN HASERREA**
Hainbat herritarrek euren haserrea agertu zuten Ertzaintzaren presentzia eta jarrerarengatik. Are gehiago, zapatuan prentsaurrekoa egin zuten Herriko Plazan eta *Arrasate bakien utzi* lelopean manifestazioa deitu dute.

KALE AGERRALDIA

### Manifestazio isila deitu dute datorren eguenean, 19:00etan

Arrasateko herritar talde batek prentsaurrekoa egin zuen zapatu eguerdian, eta kale agerraldi isila deitu dute eguenerako, hilaren 1a, Herriko Plazatik, 19:00etan.

Herritarrek salatu zuten "dena ez dela posible herri honetan. Ezin da alkatea espetxeratu, hogeitaka urtetan egon diren herriko semealaben argazkiak kendu, eragile askoren atxikimendua duten mobilizazioak debekatu, nazioarteko herriekin egiten diren elkartasun ekimenak zapuztu...".

Hala, Arrasateko herria bakean uzteko eta gatazkari konponbidea emateko eskatu zuten prentsaurrekoan.

Prentsaurrekoan herritar askok esku hartu zuten: besteak beste, Pakito Arriaranen senideek, presoen senideek, Arrasateko tabernariek, Udaleko ordezkariek eta El Salvadorren Lagunak elkarteko kideek.

**ARETXABALETAN, LAU ATXILOTU**
Bestalde, zapatuan ia ordu berean (12:45 inguru), Aretxabaletan Ertzaintza Iturrigorri pilotalekura sartu zen presoen inguruko pankarten bila. Lekukoek azaldutakoaren arabera, ertzain batek eta txakur-kume bat zeukan gazte batek eztabaida izan zuten eta gaztea atxilotu egin zuten. Ertzaintzak, berriz, jakinarazi du gazteak ez zuela identifikatu gura izan. Kontuak kontu, gaztea atxilotu bezain laster, beste herritar batzuk hurreratu ziren eta horietako hiru atxilotu zituzten euskal presoen aldeko pegatinak jantzita zituztelako.

Laurak Bergarako komisaldegira eraman zituzten: pegatinak jantzita zituzten hirurak terrorismoren gorazarrea egitearen akusaziopean eta lehenengoa desobedientziagatik.

**HERRI-BAZKARIA EGIN ZUTEN**
Ertzainek pilotalekuko sarreraren pasoa ekidin zuten eta herritar ugari batu ziren inguruan. Ordu erdira-edo, Aretxabaletako alkate Inaxio Garro, udaltzainburua eta zinegotzi bat ertzainekin batzartu egin ziren eta azkenean herri bazkaria egiten utzi zuten. Hori bai, ertzainek alkateari jakinarazi zioten ez zutela pankarta, ezta pegatinarik ikusi nahi eta ez zutela oihu iraingarririk egiten utziko. Hala, ia 500 lagunek urteroko bazkaria egin zuten pilotalekuan.

**ILUNKERARAKO, LAURAK ASKATU**
Arratsaldean Inaxio Garrok Bergarako komisaldegira jo zuen Anjel Bergaretxek eta abokatu batek lagunduta. Ordurako, 14:30erako, desobedientziaz akusatutako gaztea kalean zegoen; eta 20:00ak pasatxo beste hirurak ere askatu zituzten. Orain, epaileak noiz deitu zain egon beharko dute. Hori baino lehenago, 18:00ak aldera, kale agerraldi jendetsua egin zuten Aretxabaletako kaleetan zehar *Atxilotuak askatu* eta *Elkartasuna ez da delitua* lelopean. Ez zen inolako istilurik izan.

**PAKITO ARRIARAN GOGOAN**
Bitartean Arrasaten ere bazegoen bestelako ekitaldirik eta horren gaineko debekurik ere. Hain zuzen ere, El Salvadorren Lagunak elkarteak Pakito Arriaranen omenez Uarkape pilotalekuan antolatutako bazkaria bertan behera utzi behar izan zuten. Horren harira, antolatzaileek jakinarazi dute bazkarirako bonoak erosi zituztenek dirua berreskuratu ahal izango dutela aste honetan, erosi zuten lekura jotzen badute.

Baina, bazkariaz gain, arratsalderako ekitaldi politikoa ere iragarrita zuten Monterron parkean, Audientzia Nazionalak egubakoitzean debekatu zuena. Ekitaldiaren ordurako, 18:30erako, parkea poliziaz inguratuta zegoen, eta han ez zen inongo ekitaldirik egin, ezta saiakerarik ere. Gero jakin genuen Arrasateko beste mutur baten 200 bat lagun



Zapatu arratsaldean Arrasaten Pakito Arriaranen omenez egindako ekitaldia; lekua aldatu zuten. GOIENKARIA



Aretxabaletako alkate Inaxio Garro, zinegotzi bat eta udaltzainburua Iturrigorri pilotalekutik irte



Hainbat arrasatearrek prentsaurrekoa egin zuten, *Arrasate bakien utzi* lelopean manifestazioa deitzeko. JOSETXO ARANTZABAL

batu eta Arriarani eta harekin batera Hegoamerikan hildako beste bi lagunei omenaldi xumea egin zietela, komunikabideak ezta Ertzaintza ohartu barik.

**BIKTIMA BATEN AITA**

Txalapartariek eman zioten hasiera ekitaldiari; horiei bertsolariek jarraitu zieten eta horren ostean Begoña Garciaren (Hegoamerikan hildakoa) aitak idatzitako gutun bat irakurri zuten. Gutunaren bidez, Guillermo Garciak salatu zuen NBEren agiriek diotela bere alaba eraila izan zela; eta oso haserre dagoela biktima batzuek ez iraintzearren beste biktima batzuk ezin direlako gogoratu.

DATUA

**4**

**ARETXABALETAR ATXILOTU**

Zapatu eguerdian lau aretxabaletar atxilotu zituzten pilotalekuan. Hiruri terrorismoaren gorazarrea eta bati desobedientzia egotzi zieten. Bat eguerdian askatu zuten eta besteak iluntzean.

Horren ostean, hizlari batek Euskal Herriko egoera politikoa berbagai izan zuen; eta bukatzeko, lore eskaintza eta aurreskua egin zituzten.

**GUDARI EGUNA, ARRASATEN**

Horrez guztiaz gain, zapatu gauean Ertzaintzaren zainketa saihestuz, hainbat herritarrek Arrasaten omenaldi bat egin zieten "eraildako Arrasateko 14 militanteri", Gudari Egunaren harira.

Lekukoek azaldutakoaren arabera, krabelin gorriak jarri zituzten ikurrin baten gainean, eta hildako herrikideak gogoan izan zituzten.

Horrekin batera, omenaldi horretan azpimarratu zuten "ezker abertzalea bideak zabaltzen dabilela marko berri bat eta independentzia lortzeko"; eta horren aurrean, "Estatua estrategia errepresiboa indartzen" dabilela.


...eten, zapatu eguerdian, ertzainei atxilotuen eta herri bazkariaren gainean galdetu ondoren. JOSETXO ARANTZABAL

**IKERKUNTZA** > IKERLAN IK-4 ZENTROA

# "Masa-pertsonalizazioa gakoa da krisian lehiakor izateko"

Kalitate handiko produktuak kostu txikian eta bezeroak eskatutako kantitateetan, filosofia hori bultzatuko du Ikerlanek, MITekin batera

**L.K.** > ARRASATE

Ikerlan IK-4 ikerkuntza zentroak masa-pertsonalizazioaren aldeko apustua indartu du, Massachusetts-eko (AEB) Teknologia Erakundearekin (MIT) elkarlana eginez. Hala, pasa den astean batzartu ziren bi zentroetako arduradunak Arrasaten; tartean, kontzeptua asmatu zuenetako bat, Joseph Pine. Batzarrean, ados agertu ziren honetan: masa-pertsonalizazioa funtsezkoa dela enpresa lehiakorra izan dadin, "negozio-aukerak deuseztu ez dituen krisi garai honetan".

**ABANTAILA ASKO**

Masa-pertsonalizazioaren arabera, kalitate handiko produktuak eta zerbitzuak lor daitezke, kostu txikian eta bezero bakoitzaren eskaeraren arabera kantitateak ekoiztuz. Sortzaileen arabera, kontzeptu horrek daukan abantaila handiena da enpresak bezeroaren premia zehatzei erantzun diezaiekeela modu masiboan egindako ekoizpen tradizionalaren prezio berberekin, kalitatea eta entrega-data ere berberak izanda.


J.Mendigutxia (Ikerlan IK-4), J.Pine (MIT) eta J.C. Beitialarrangoitia. GOIENKARIA

**KOOPERATIBAK** > EROSKI TALDEA

# Urtean %10 gehiago lan egitea eta soldatari eustea erabaki du Eroski Taldeak

Azaroaren 1ean hasiko dira modu horretan lanean, eta datorren urtean 178 ordu gehiago egingo dituzte

**L.K.** > ARRASATE

Eroski Taldeko 9.000 kooperatibistek %10 gehiago lan egingo dute, oraingo soldatarekin. Hala onartu zuen egubakoitzean Eroskiko Errektore Kontseiluak. Azaroaren 1ean hasiko dira modu horretan lanean, eta 2010. urte osoan jarraituko dute; praktikan, 2011ko urtarrila arte.

Gaur egun, 1.784 orduko urteko egutegia dute Eroskiko kooperatibistek, eta 178 ordu gehiago egingo dituzte datorren urtean.

**ORDEZKORIK EZ**

Neurri horrekin, krisiari aurre egin eta enplegu osoa ziurtatu gura du Eroskik. Eskaera handiko garaietan –Gabonak, zapatuak…–, Eroskiko bazkideek egingo dute lan, eta Taldeak ez du aldi bateko edo ordezko langilerik kontratatzeko beharrik izango.

Lehendik ere onartuta zituen Eroskik krisiaren aurkako neurri batzuk: adibidez, bazkideek izoztuta dute soldata urtarril hasieratik.

**Amagoia Lasagabaster** > ELA sindikatuko Debagoieneko ordezkaria

# "Langileen osasuna eta bizia babesten duen kalitatezko enplegua aldarrikatzen dugu"

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ARRASATE

**Gehiengo sindikalak iragarri du mobilizazioak egingo dituela datozen hilabeteetan dagoen egoera salatzeko eta langileen eskubideak aldarrikatzeko. Horren gaineko xehetasunak eman dizkigu ELAko ordezkari Amagoia Lasagabasterrek.**

**Hemendik aurrera mobilizazio gehiago izango dira, ezta?**

Mobilizaziotan egon gara krisiak kolpatu gintuenetik. Uste zuten maiatzaren 21eko greba orokorraren ostean, gure lekura bueltatuko ginela isil isilik. Baina Euskal Herrian nagusitasun sindikala daukagunok berdin jarraitu dugu indarrak batzen langileriaren defentsarako. Krisiak gero eta ondorio larriagoak ditu, batik bat langileendako. Patronalak, gobernuak, gero eta eskari potoloagoak egiten ditu eta beste eredu sozial eta politiko bat aldarrikatzera gatoz.

**Aldarrikapenak ez ezik proposamenak ere egin dituzue.**

Premiazko neurri moduan aurkeztu dugu dekalogo bat eredu berri bat eskatzeko. Lehenengo puntua kalitatezko enplegua eskatzea da. Hainbeste espediente mahai gainean jartzen dituzten honetan eskatzen dugu ez onartzea espedienterik ordezkaritza sindikalaren gehiengoa ados egon ezean. Aldi baterako kontratazioen harira malgutasuna eskatzen dute enpleguan eta uste dugu nahikoa egon dela. Gero eta gehiago egiten da sektore publikoaren pribatizazioa. Oro har kalitatezko enplegua da langileen osasuna eta bizia babestea.

Horretaz gain, eskatzen dugu prestazio sozialak hobetzea. Zerga politiketan ere okerrera goaz, hau da, gutxien daukanari gehien kentzen zaio, dirua multzokatzen dutenei gero eta gutxiago, eta beste premia batzuetarako ez da dirurik egoten. Osasun eta hezkuntzari dagokion gastu publikoa igotzea eskatzen dugu ongizate gizartean bizi garelako.

Eskatzen dugu baita ere askatasun sindikala bermatzea; greba eskubideari oztopoak jartzen dabiltza eta neurrigabeko gutxiengo zerbitzuak ipintzen dituzte.

Azken puntua da lan harremanerako eta babes sozialerako euskal esparrua bultzatzea Hego Euskal Herrian lege propioak izan ditzagun, enplegu, negoziazio kolektibo eta babes sozialaren arloetan. Hortaz, politika sozialen eta ekonomikoen ikuspenean parte hartzen utziz gero, gure aldarrikapenak horiek lirateke.

**Agintariek diote krisi garaian horrelako neurriak ezin direla hartu. Nola ikusten duzue etorkizuna?**



Amagoia Lasagabaster Bergarako ELAko egoitzaren aurrean. IKER BARANDIARAN

**"Harremanerako eta babes sozialerako euskal esparrua bultzatu nahi dugu bultzatzea Hego Euskal Herrian lege propioak izan ditzagun"**

**"Patronalak, gobernuak gero eta eskari potoloagoak egiten ditu etagehiengo sindikala beste eredu sozial eta politiko bat aldarrikatzera gatoz"**

Ilun, baina eredu berri bat posible da. Gobernua eta enpresak ase ezinak dira; disimulatzeko, gehiengo sindikala ez dagoen elkarrizketa soziala dago eta babesten dituzte gobernuaren eta enpresarien neurriak. Azken krisian malgutasuna eman zitzaion aldi baterako kontratazioari eta gertu egon behar dugu horrelakorik ez gertatzeko.

**Hurrengo urtean Espainiako Estatuan krisia gogortu egingo omen da. Ze mezu zabaldu nahi diezue langileei?**

Enpresa bakoitzean eta kalean euren borroka egiteko eta eusteko, espediente asko onartzen ari direlako. Bakoitzak badaki zein den bere enpresaren errealitatea eta bakoitzak defendatu behar du bere lana.

**Dekalogoaren harira kanpaina egingo duzue. Noiz izango da?**

Dekalogoa ez da enpresa mundurako bakarrik, herrian sozializatzeko ere bada. Sinadura kanpaina egingo dugu dekalogoarekiko atxikimenduak jasotzeko, merezi duelako borroka egitea. Hortaz, enpresetan ez ezik Hego Euskal Herrian, herriz herri ibiliko gara sinadurak jasotzen, baina oraindik ez dugu data zehatzik.

**Gehiengo sindikala ez dago elkarrizketa mahaian, zergatik?**

Eurek esandako kontuez baino ez da hitz egiten. Fiskalitatea edo nolako gizarte eredua nahi dugun lantzen ez diren gaiak dira. Hezkuntza programak nola diruz lagundu baldin bada dagoen kezka, elkarrizketa antzua da. ELAtik ez dugu elkarrizketa handirik izan gobernuarekin. Elkarrizketari ez diogu sekula uko egin, baina guk hamar puntu hauetaz hitz egin nahi dugu eta horietaz ez da hitz egiten.

**etxeko leihotik**



**Usoa Agirre Jauregi** > uagirre@goiena.com

## Autorik gabe bizi nahi dut egunero, ez urtean behin

Mugikortasun astea pasatzen den bakoitzean buruan kontu bera izaten dut: autorik gabe bizi nahi dut egunerokoan. Aspertuta nago autoarekin hara eta hona ibiltzen. Goizero lasai-lasai joan nahi dut lanera autobusez, irakurtzen edo musika entzuten. Baina, ezinezkoa da. Ez pentsa saiatzen ez naizenik; ez naiz autobusean ez joateagatik aitzakia jartzen dutenetarikoa. Ahalegindu naiz nire herritik, Antzuolatik, Arrasatera lanera joateko konbinazio ezberdinak egiten autorik ez hartzeko. Berandu iristen naiz, ordea, lanera eta egun osoa autobusean ibili naizenaren sentsazioarekin. Hurrengo egunean autoa hartzen dut berriro.

**"Nolatan gaude oraindik bidegorririk gabe Antzuola eta Bergara artean?"**

Tolosaldeko lagun batek beti galdetzen dit ea nolatan gauden oraindik bidegorririk gabe Antzuola eta Bergara artean. Nik ere gauza bera galdetzen dut. Baina, badirudi laster izango dugula, ezta? Orduan bidegorritik joango gara Bergarara, oinez, bizikletaz edo patinetan. Antzuolan autobus gehiago jartzea baino bideragarriagoa iruditzen zait aukera hori. Beti baita kontu berdina: ez duzu autobusik erabiltzen zuri komeni zaizunean ez dagoelako; eta ez dute autobus gehiago jartzen ez delako jende asko ibiltzen. Autobus enpresak errentagarritasunari begiratu behar dio; erakunde publikoek herritarrei. Ea behingoz gure ibarrera ere begiratzen duten.

**> Eremu mistoa**

**Nafarroan oztopoak jarri eta jarri ari dira euskarari. Iruñerriko lau udalerri eremu mistoan sartu edo ez daude, CDNk zer bozkatuko duenaren zain. *Lingua Navarrorum* atzerrikoa da Nafarroan.**

**> Kanon digitala**

**Sevillako epaitegi batek dendari bat zigortu du bezero batek lau CDrengatik ordaindu zuen kanon digitalaren kostua itzultzera: 1,12 euro. Ez da asko, baina badirudi kanon digitalaren legea zalantzan dagoela Espainian.**

**ARALAR** > BILTZAR NAGUSIA

## Rebeka Ubera, Aralarreko antolaketa idazkari berria

Rebeka Ubera Elgetako zinegotzia eta Batzar Nagusiko ordezkaria da

**A.E.** > BERGARA

Rebeka Ubera izango da Aralarreko antolaketa idazkari berria aurrerantzean. Aste bukaeran Iruñeako Baluarte jauregian egindako batzarrean izendatu dute elgetarra kargu horretarako. Gainera, Aralarreko militanteek erabakita, Patxi Zabaleta izango da Aralarreko koordinatzailea beste hiru urtez.

**BARNE ANTOLAKETA**

Uberak azaldu digu sorpresaz hartu duela kargua, baina era beran ilusioz: "Patxik proposatu zidan berarekin joatea". Ardura handiko lana izango dela aitortu du; egin beharko du, besteak beste, Aralarreko kideak koordinatu eta babestu. "Barne antolakuntzaz arduratuko naiz. Kontuan hartu alderdi gaztea dela, baina emaitza onak izan ditugu", dio Uberak.

auzorik auzo

**ELORREGI** > San Prudentzio izenaz ezagunagoa, Elorregi Bergarako auzoa da. Errepidea pasatzen da auzoaren erditik; hori dela-eta, auzotarrak kezkatuta daude. Hango alkate Jesus Mari Osarekin izan gara .



Jesus Mari Osa pilotalekuaren aurrealdean; jende asko joaten da pilotan egitera Elorregira. A.E.

**Jesus Mari Osa** > Elorregiko auzo-alkatea

# "Elorregi da auzoaren izena, baina San Prudentzio bezala ezagunagoa da askorentzat"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Arrasatek, Bergarak eta Oñatik muga egiten duten tokian dago Elorregi. Gaur egun 48 etxebizitza daude; eta ia denetan bizi da familiaren bat. Osak zortzi urte daramatza auzo-alkate lanetan. Auzoak dituen beharrak azaldu dizkigu.**

**Elorregi baino, San Prudentzio bezala ezagunagoa da auzoa!**

Bai, aspalditik da horrela! Jende askok ez daki auzoaren benetako izena Elorregi dela. San Prudentzio bezala ezagunagoa dela esan daiteke.

**Nolakoa da gaur egun auzoaren egoera?**

Baserri ia denetan bizi da norbait, baina biztanleriak behera egin du azkeneko urteetan. Nagusiak hil egin dira, eta jaio, ostera, gutxi egin dira.

Esan daiteke gazte gutxi dagoela; beti betikoak ibiltzen gara jaiak antolatzen edo auzo-lanean.

**Aparkaleku gutxi omen dituzue auzoan.**

Bai, auzoaren arazoetako bat hori da. Elkartea dugu, errepidearen aldamenean, baina ez dago nahikoa aparkaleku –10-15 auto–. Nik gurako nukeena da errekaren beste aldean dagoen lur zatia txukun jartzea eta han aparkaleku bat egokitzea. Zubi bat egingo balute bi aldeak lotzeko, egokia izango litzateke.

**Gainera, errepide nagusia auzoaren erdialdetik pasatzen da. Arazoak ematen dizkizue?**

Bai, izan ditugu arazoak. Azkena orain dela urtebete inguru. Abiadura muga dago, baina egia esan behar bada ez dugu inork errespetatzen. Eskatu izan dugu semaforo bat jartzea eta oinezkoendako pasoa; baita badenak ere. Baina diputazioarena da errepidea eta oraindik ez dugu erantzunik jaso.

JAIAK

## "Auzo-bazkaria emakumeek prestatzen dute"

San Prudentzio jaiak ospatzen dituzte Elorregin. Jaiak eguenean hasten dituzte, txopoaren igoerarekin. Egubakoitzean auzo-afaria egiten dute; eta, zapatuan, bazkaria. "Auzoko emakumeek gertatzen dute bazkaria; ohitura da, horrela egin izan da azken urteetan", azaldu du Osak. Ondoren, bertsolariak eta trikitilariak izaten dituzte: "Azkeneko bost urteetan Peñagarikano eta Amuriza etorri izan dira. Oso gustura egoten gera denok, eta horrela jarraitzeko asmoa dugu", dio Osak. Aurten, Manu Iztueta trikitilaria etorri da San Prudentzio jaietara.

**Kanposanturako bidea argiztatzen hasi zineten. Nola daude lanak?**

Arazo batzuk tarteko lanak geldi daude. Kontua da hilerrian, eta harako bidean ez dagoela argirik eta komeniko litzatekeela argiztatzea. Izan ere, hileta elizkizunak berandu izaten dira eta ilun egoten da.

**Zer eskaintzen dio auzoak bisitariari?**

Bergaratik Arrasatera doan bidegorria pasatzen da Elorregitik. Jende asko ibiltzen da oinez. Bestalde, hainbat ibilaldi egin daitezke mendi inguruetara.

**Auzoaren erdialdean XV. mendeko parrokia duzue.**

Bai, XV. mendean eraikitakoa da, eta 1881ean parrokia izendatu zuten.

Gaur egun elkartea dagoen eraikina lehen eskola zen. Auzo lanean eraiki zuten, errekatik hartutako harriekin. Orain dela 35 urte inguru utzi zion eskola izateari. Azkeneko maistra kataluniar bat izan zen.

**Auzotarren artean, bada norbait ezaguna?**

Juan Osa pilotaria Elorregikoa zen, eta Pedro Mari Osa ere oso trebea zen aizkorarekin gaztetan. Bestalde, Osa Sakona, herri kiroletan aditua, Elorregi auzokoa da.

**Berriz ere.**

**GOIENKARIA da hedabide irakurriena Debagoienean, berriz ere.**
CIESen 2009ko lehen neurketak horixe dio.
Zuk eta beste 36.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero.
Gipuzkoa osoan, 44.000 lagunek.
Eskerrik asko irakurleoi eta publizitatea jartzen duzuen guztioi.
Goienkaria



Eskoriatzako Udalak *Gure emozioak nola gobernatu* izeneko tailerra antolatu du urritik abendura bitartean. Guztira, mintegia bi orduko hamar saiokoa izango da eta Pepa Bojo psikologo eta psikoterapeuta arduratuko da horiek emateaz. Datozen lerroetan tailerra zertan datzan, zeini zuzenduta dagoen eta, orokorrean, emozioen gainean jardun du.

**Pepa Bojo** > Psikologoa

# "Emozionalki nahiko galduta gaude, analfabetoak izango bagina bezala da"

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

**Pepa Bojo psikologoa Eskoriatzan egongo da datozen hilabeteotan, emozioen gaineko mintegia ematen. Norberaren bizitzan emozioek duten paperaz eta horiek zelan gobernatzeaz jardungo dute. Datozen lerroetan, besteak beste, emozioak gizatiarrak eta naturalak direla eta, hortaz, norberarenak direla azalduko die parte hartzen duten emakumeei. Horren harira, norberak kontrolatu ahal izateko "giltza" duela ere jakinaraziko die, besteak beste.**

**Zer landuko duzu Eskoriatzan eman behar duzun tailerrean? Nori dago zuzenduta bereziki batez ere?**

Emozioekin egingo dugu lan Eskoriatzan emango dudan mintegian. Gure bizitzan emozioek duten paperaz eta horiek zelan gobernatzeaz jardungo dugu. Horixe da, hain zuzen, daukagun arazo nagusiena: ez dakigula emozioak zelan erabili.

Lehenik eta behin, irakatsi digutena dela-eta, hainbat emozio azaleratzen asko kostatzen zaigula azalduko diet parte hartzaileei. Jarraian, sentitzen ditugun emozio horiei izena jarriko diegu eta, azkenik, emozioak zelan bideratu erakutsiko diet.

Bestalde, esan beharra dago edozein adinetako emakumeei zuzenduta dagoela. Urteak daramatzat emakumeekin lan egiten.

**Nork bere emozioak ezagutzen ditu?**

Emozio guztiak gizatiarrak eta naturalak dira. Gertatzen dena da jasotako hezkuntzak eragina izan duela, eta emozioak onak edo txarrak bezala sailkatzen ditugu; edo, hobe esanda, esan daitezkeenak edo ez.

Jasotako hezkuntzaren arabera, askotan emozio zehatza sentitzen dugula onartzea kosta egiten zaigu, erakutsi digute-eta hori ez dela ona. Hezkuntzak paper oso garrantzitsua du emozioetan, jarrera zapaltzailea izan dezakeelako. Baina sentitu, mundu guztiak sentitzen du.

**Emozioak aukera daitezke?**

Maneia daitezke. Batzuek berezko erreakzioak sortzen dizkigute. Esaterako, arrisku edo guretako ezaguna ez den egoera baten aurrean beldurra edo urduritasuna sentitzen dugu eta hori ezin dugu aukeratu. Bestetik, pentsamendutik sortzen diren emozioak ditugu. Kasu horretan, alda ditzakegu. Nik gauzez uste dudana eralda dezaket eta horrek eragina izango du nire emozioetan. Adibidez, mundu guztia nirekin haserre dagoela uste badut, dena horren harira interpretatuko dut.

**Emakume eta gizonen artean aldea dago emozioen harira?**

Bai, horregatik egokia iruditu zait tailerra emakumeekin egitea. Esan bezala, hezkuntzak baldintzatzen gaitu eta horren eraginez, gizonezkoek afektuarekin, beldurrarekin edo segurtasunik ezarekin zerikusia duten emozioak erreprimitzen dituzte. Emakumeek, berriz, agresibitatearekin lotutakoak. Azken horretaz hausnartu beharra dago. Hezkuntza dela-eta, hainbat emozio emakumeenak eta gizonezkoenak balira bezala kontsideratzen da. Horrek ez digu onik egiten, emozio-aberastasunak ez du-eta generoaz ulertzen.



Pepa Bojo psikologoak urteak daramatza emakumeekin lan egiten. GOIENKARIA

GIZATIARRAK

**"Norberak dituen emozio guztiak gizatiarrak eta naturalak dira"**

HEZKUNTZA

**"Hezkuntzak paper oso garrantzitsua du, jarrera zapaltzailea izan dezakeelako"**

FORMAZIO EZA

**"Ez dakigu emozioak maneiatzen minik egin gabe; formaziorik eza ikusten dut nik hor"**

**Gaur egun zaila da gure emozioak gobernatzea?**

Beti da zaila hainbat emozio kontrolatzea. Batzuei talentu txarra kontrolatzea kosta egiten zaien neurrian, beste batzuei beldurrari zelan egin aurre kostatzen zaie. Adina eta hezkuntza alde batera utzita, guztiok daukagu kontrolatzea zaila egiten zaigun emozioren bat.

**Horren harira, gaur egungo bizimoduak eragina du?**

Erabat. Estresak eta larritasunak emozioen eta pentsamenduen kontrolaren galera eragiten dute. Gaur egun emozionalki nahiko galduta gaude, analfabetoak izango bagina bezala da. Gauza asko dakizkigu; baina ez dakigu zer sentitzen dugun, zergatik eta horrekin zer egin behar dugun. Eta hori funtsezkoa da, emozioek autoestimuan, osasunean eta animuan eragiten dutelako eta harremanetan oso garrantzitsuak direlako.

Horrek, gaur egun, arazo izaten dihardu. Ez dakigu emozioak maneiatzen, guri edo beste batzuei minik egin gabe. Formaziorik eza ikusten dut nik hor.

**Duten garrantzia ematen diegu emozioei?**

Orain hasi gara garrantzia ematen. Jendea orain hasi da ikusten ematen duena baino garrantzitsuagoak direla; esan bezala, osasunean eta harremanetan eragina dutela. Dena den, oraindik, asko falta da egiteko. Azken finean, oraindik burua eta adimena garrantzitsuena den eta emozioak bigarren mailakoak diren gizartean bizi gara.

Egunerokotasunean funtsezkoak dira. Azkartasun Emozionala bilatu behar dugu, horren harira. Hain zuzen ere, harremanak, estimuak, sentimenduak edo emozioak nabaritzen dituena eta horiek ondo gobernatzen dakiena. Analfabetoak dira alor hori kontrolatzen ez dutenak.

**Eta zelan lor daiteke emozioen oreka? Non dago gakoa?**

Lehenik eta behin, sentitzen dugunaz jabetu behar dugu; sentitu behar dugun edo ez pentsatu barik. Emozio horri izena jarri behar diogu. Ikastaldi emozionala deitzen diogu horri. Batzuetan, bakarrik ondo edo txarto sentitzen garen esateko gai gara; baina, ona eta txarra barruan, emozioen mila ñabardura daude. Izena jarri ostean, hori kontrolatzen ikasi behar dugu. Zelan? Emozio hori bideratuz, harremana aberastuz edo, gutxienez, ingurunekoei edo norberari minik ez egiten.

**Bizimoduak eragina duela aipatu duzu lehen. Ingurukoen jarrerak ere zerikusia izango du, ezta?**

Egoera baten aurrean norberak sentitzen duen erantzukizuna bakoitzarena da. Ezin dugu ondokoa erantzule egin. Horrek, baina, ez du esan nahi beste pertsona batek egiten duena kritikagarria ez denik eta zuk, horren aurrean, zerbait egin behar ez duzunik. Esaterako, norbaitek kolpatzen banau, argi dago nik horren aurrean zerbait egin behar dudala. Baina nik horren harira sentitzen dudana nirea da eta, hortaz, nik kontrolatu behar dut.


Kutxa Gordailu Hobaritua
Zenbat eta kutxakoagoa izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat.
Urteak igaro ahala harremanak hobeak, baita zure eta kutxaren artean ere. Horregatik, zure leialtasuna eskertzeko, eta ez hitzez bakarrik, Kutxa Gordailu Hobaritua eskaintzen dizugu. Gordailu honekin, zenbat eta gure produktu gehiago izan, orduan eta interes handiagoa zuretzat.
Zatoz eta galdetu. Irabazian aterako zara.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

## kale inkesta

# Jaietako aurrekontua murriztu egin dute hainbat ekitaldi kenduz. Ados zaude erabakiarekin?



**Gorka Zelaia**
Langilea
Oñati

Egun bizi dugun egoeran normala iruditzen zait aurrekontua murriztea; eta, ondo iruditzen zait kendu dituzten ekitaldiak. Nik Herri Eguna eta Bixamon eguna ditut gustukoen; horiek ez nituzke kenduko.



**Amaia Basterra**
Ikaslea
Oñati

Su artifizialak ez nituzke kenduko; sokamuturra, ostera, arriskutsuagoa da. Niretzat jaietako egun politena Herri Eguna da, ezberdina delako; baita Bixamon eguna ere, barre asko egiten delako.



**Edurne Urteaga**
Langilea
Oñati

Normala ikusten dut aurreztu beharra. Adibidez, jaietako egitarauan, paperean, gutxiago gastatu daitekeela uste dut. Su artifizialak ikustera jende asko joaten zen, baina egia da garestiak direla.



**Elias Muxika**
Langilea
Oñati

Dirua begiratu egin behar da, baina goizeko sokamuturra, adibidez, gustuko ekitaldia nuen. Su artifizialetara ere jende asko joaten zen. Nire ustez domekako orkestran aurreztu beharko lukete dirua.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA
**> Ipintzako futbol zelaian jendearendako aterpe falta**

Bergarako futbolzale baten kexa jaso dugu oraingo astean. Haren arabera, Ipintzako futbol zelaia oso ondo dago eta Udalaren ahalegina txalotu beharra dago, bazelako ordua neska-mutikoek ganorazko futbol zelai bat, belar artifizialekoa izateko. Dena den, gauza bat botatzen du faltan deitu digun futbolzale honek: jendearendako aterpetxo bat. "Zer egingo dugu neguan, euria egiten duenean? Udalari aterpe bat egokitzeko eskatu nahi diot, hara hurbiltzen garen guztiok eskertuko dugu-eta".

ARRASATE
**> Zorionak Arrasate Musikali, ballet ikastaroarengandik**

Emakume batek Arrasate Musikal zoriondu nahi du balet eta dantza garaikideko eskolak antolatzeagatik. "Leku gutxitan dago horretarako aukera eta benetan eskertzekoa da Arrasaten izatea".

BERGARA
**> Ganaduarekin arazoak Gorlako kantinaren inguruan**

Gorlako kantinara joateko ohitura duen gizon batek zera esan digu: "Behin baino gehiagotan, inguruko baserriren batetik, behiak askatzen dituzte Gorlako kantinaren inguruan eta arriskua nabarmena da handik pasatzen diren autoendako. Dagokion baserritarrak zaintzea dauka ganadua, behar den bezala. Bestela, udaltzaingoari neurriak hartzeko eskatu nahi diot".

## usteak uste

**Edu Mendibil**

# Sugandilak eta sastrakak

Urteak joan eta urteak etorri, gero eta egoera eskasagoan aurkitzen da Bergarako Arrizuriaga etxea. Ertzaintza hainbat urtez egon zen bertan eta ordutik hona, utzikeria nabaria da hango etxe eta parkean. Hasiera baten, aspaldiko proiektuaren arabera (pentsa, Victoriano Gallastegiren lehen agintaldiaren sasoian nonbait), Udal Liburutegia jartzekoa zen Arrizuriagan. Udalaren azken asmoa zera da: truke baten bidez eraikina UNED ikastetxeari uztea.

Baina ikasturte berri bat hastear den honetan, ikasleen arrastorik ez. Sugandilak eta sastrakak dira nagusi. Ezin ukatu *Halloween* festarako eszenatoki ezin hobea daukagula Bergaran...

Seminarioko elizan, bitartean, indusketa lanetan dihardute. Lur azpiko altxorren bila hasi aurretik, hobe izango da zutik daudenak ondo zaintzea, ala?

## zorroztailea



**Joxemari Muxika**

# Euskararen bazterketa

"Ideologia solariegoak bere mesederako erabili zuen euskara Erdi Aroan. Euskaldun handikien elitea izan zen euskara hizkuntza kultu eta moderno bihurtu ez izanaren errudun nagusia. Herri xehea liburuetatik urrundu zuten, ideia berriei sarrera eragoztearren."

**Jon Sudupe**
*Erabili.com* > 2009-09-25




Artikulua bere orokorrean interesgarria iruditu zait eta gustura irakurri dut. Hala ere harritu nau euskararen bilakaerari dagokionean, Jon Sudupek dionak: "Euskaldun handikien elitea izan zen euskara hizkuntza kultu eta moderno bihurtu ez izanaren errudun nagusia (...)"; "Uste ohi denaren kontra, euskara ez zuen «zentralismoak» baztertu, euskal nobleziak berak baizik".

Bestaldetik, antzeko iritzia azaltzen du Lorenzo Rojok bere *Erabili.com*-eko *Kolonoak eta jauntxoak* artikuluan: "Euskararena atzerakada historikoa izan da eta arrazoi bat baino gehiago dago atzean (euskal eliteek hizkuntzari mende luzez eman zioten balio gutxia, tartean)" dio, eta eransten du: "Botere politiko propiorik ez izatea izan da, azken finean, faktore erabakigarriena".

Baieztapen gogorra iruditzen zait Sudupek egindakoa. Hezkuntzako eta administrazioko hizkuntza inplantazio prozedura kontuan hartzen badugu, ez dut uste zentralismoaren eragina txantxetakoa denik.

> **"Zentralismoaren eragina ez da txantxetan hartzekoa"**
>
> **"Gaztelaniaren ezarpenak bizirik jarraitzen du"**

Batez ere, hezkuntzaren eragina ahaztu egin dutela uste dut. Izan ere, elite horrek benetan zenbaiterainoko boterea izan du "hezkuntza publikoa" antolatzerakoan? Hala ere, (bestalde) behar beste ez duela egin ere esan genezake lasai asko, kontuan izanik hizkuntzaren garapenaz ez dela asko arduratu.

Uste dut bat etorri gaitezkeela mende luzez ezarria izan den hezkuntza sistemaren eragina azpimarratzerakoan. 1.856. urtean hasi zen Heziketa Publikoa antolatzen Espainiako Estatuko Narvaezen gobernuko Claudio Moyano ministroa. Gaztelania ezarri zuten irakaskuntzan eta oraindik ere hala jarraitzen du zenbait tokitan, aldatu barik. Eta hori, zalantza barik, erabakigarria izan da euskararen garapenarenerako.

Hortaz, euskal eliteek badute beren errua, noski, eta ez dut justifikatzen euren jarduna, baina aldi berean ezin dugu inola ere ahaztu nortzuk ezarritako legeen agindupean jardun duten beroiek ere.

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Iker Barandiaran **Erredakzioa** Edu Mendibil, Arantzazu Ezkibel, Miren Agirre **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe **Maketazioa** Kepa Martelo **Publizitate arduraduna** Mireia Larrañaga **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** SS-0088/04 • **ISSN:** 1697 3542 • **Tirada:** 5.000 ale • **Difusioa:** 4.383 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

**Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria**

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

**Arrasate** > 14 **Bergara** > 16 **Oñati** > 18 **Aretxabaleta** > 19 **Eskoriatza** > 19
**Antzuola** > 20 **Aramaio** > 20 **Elgeta** > 20 **Leintz Gatzaga** > 20



**> ARRASATE**
Eskualdeko Ospitalean geratuko da Lurraldebusko autobusa aurrerantzean **> 14**



**> BERGARA**
Eguneko, batez beste, 1.150 sarrera izan dira udako denboraldian Agorrosinen **> 16**



**> ARAMAIO**
Bularretik Mintzora kanpaina aurkeztu dute, 0 eta 6 urte bitartekoen irakurketa bultzatzeko **> 20**

**DEBAGOIENA** > KULTURA

# Danbakako hirugarren edizioko irabazle The Wet Band, estudioan

**EGUBAKOITZERAKO**
Aste honetan bukatuko dute diskoa grabatzen eta nahasten

**TALDEKIDE BERRIA**
Saxofoia eta teklatuak jotzeko lagun berria batu da taldean

**NEGURAKO**
Asmoa da Gaztelupeko Hotsak eta Danbakak diskoa negurako kaleratzea



**GRABATZEN** Ezkerretik eskumara, Endika, Endika (taldekide berria), Iñigo eta Aitzol taldekideak Shot! grabazio estudioan (Ainara abeslaria falta da). IKER BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE
Mutrikuko Iñigok, Aitzolek, Endikak eta Ainarak Danbaka musika lehiaketako hirugarren edizioan bi sari jaso zituzten: lehiaketako talde onenarena eta ikusleena. Hala, lehiaketa irabazteagatik diskoa grabatu eta kalean izango dute aurten.

**EGUBAKOITZERAKO, BUKATUTA**
Dagoeneko Arrasateko Shot! grabazio estudioan buru-belarri dabiltza eta egubakoitzerako (urriaren 2a) grabazioa nahastuta eta masterizatuta izatea espero dute. Une honetan azkeneko instrumentuak eta ahotsak grabatzen dabiltza.

**TALDEKIDE BERRIA**
The Wet Band taldearen berrikuntza nagusiena boskote bihurtu izana da: Endika Kerejeta herrikidea batu zaie, saxofoia eta teklatua jotzeko. "Aspaldiko laguna da eta azkenean konbentzitu dugu. Hiru instrumentu bakarrik izanda lagungarria zitzaigun teklatuarekin hutsuneak betetzea eta saxofoiarekin Ainararen ahotsari laguntzea", azaldu digu baxu jotzaile Iñigo Gorritxategik.

Kerejetak oraindik kontzertu bakarra egin du eurekin, Ondarroan, baina pozik dago.

Mutrikuarrek oso kontzertu gutxi egin dituzte Danbakako sariak eskuratu zituztenetik; kanta berriak ateratzen ibili dira: "Konposatzen ibili gara Danbakan jo genituen sei kantuez gain, beste sei izateko; eta, horien soinua ateratzen ere", esan digu Gorritxategik.

Diskoa zelakoa izango den galdetzean, zera diozku Aitzol Collazo bateria jotzaileak: "Diskoaren izena *Waterproof* edo *Water resistant* izango da, bietako bat, taldearekin, urarekin eta hezetasunarekin lotura izango duena".

Gainontzean, azaldu dute gitarra gogorrak grabatu dituztela, lehengoak baino gogorragoak, eta baita Santanaren ildokoak ere, saltseroagoak. Azpimarratu dute melodia eta distortsioa, biak, oso presente egongo direla. Baita ukitu modernoak ere. Danbakako sei kantu eta beste horrenbeste sartuko dituzte.

**ADI HOLDEN, URRIAN ESTUDIORA**
Taldekideek aurreratu digute prestatzen dabiltzan diskoak 11 edo 12 kantu izango dituela (iraupenaren arabera) eta gehienetan –ohiko duten moduan– ingelesez abestuko duten arren, izango da baita ere euskarazko bat: "Hutsik". Hitzak idazteko, askotan zapatu gauetan inspiratzen direla diote: "Bakardadeari buruzkoak dira batzuk, baita geuri zapatu gauetan gertatutakoak eta burutazioak; horrez gain, izango dira kritika kutsua duten pare bat kantu ere".

The Wet Band taldearen diskoa Gaztelupeko Hotsak eta Danbakak kaleratuko dute; asmoa da neguan kaleratzea.

Horrez gain, Danbakako hirugarren edizioan Debagoieneko talde onenaren saria jaso zuen Adi Holden taldea urrian sartuko da diskoa grabatzera Shot! grabazio estudiora.


50 artisau postuk bete zuten Durana kalea eta herriko plaza. JOSETXO ARANTZABAL


Tril emakume taldeak Talo postua ipini zuen Pagaldai tabernan. JOSETXO ARANTZABAL


Herri bazkarian 500 lagun inguru elkartu ziren. I.A.


*Bihurri* aizkolaria erakustaldian. O.I.


Kurtzebarri eskolakoek ere ipini zuten postua Durana kalean J.A.


Larrain dantzak gero eta herritar gehiago batzen ditu. MIRARI ALTUBE


Aitor Murua aretxabaletarra bizikleta gainean. MIRARI ALTUBE

**ARETXABALETA** > SAN MIGEL JAIAK

# Bat egin dute jaiak, tradizioak eta aldarrikapenak San Migeletan

Zapatuko Artisauen feriak ikusmin handia piztu zuen; gainontzeko ekintzak ere oso jendetsuak izan dira

**MIREN ARREGI** > ARETXABALETA

Ez dira toki gutxitan ospatzen San Migelak Debagoienean, baina, Aretxabaletan besteko jai girorik ez dugu aurkitu beste inon asteburuan. Batzuek Andramari jaiekin nahikoa ez, eta beste askok abuztuan oporretan irteteko aprobetxatzen dutenez, San Migel jaiak sutsuki bizi dituzte aretxabaletarrek.

Egubakoitz arratsaldean hasi zen Aretxabaleta jai giroan murgiltzen. Erretiratuendako eta umeendako ekintzekin hasi ziren jaiak. Erretiratuendako luntxa eta dantzaldia egin zituzten Basotxo elkartean. Bien bitartean puzgarriez gozatu zuten herriko umeek, izan ere Durana kalea jolastoki profesionala bilakatu zuten.

Iaz ez bezala, bertso jaialdia egubakoitzean egin zuten Arkupe Kultur Etxean; hain zuzen ere, iaz domekan egin zuten bertso jaialdia, eta jende gutxi bertaratu zela ikusita, aurten egubakoitzean egitea pentsatu zuten. Baina, aurreikuspen guztien kontra, aurten ere oso jende gutxi joan zen Sebastian Lizaso, Jon Maia, Onintza Enbeita eta Jokin Labaienen bertso jaialdia ikustera. Gauean kontzertuen txanda izan zen, eta arrazoi desberdinak tarteko, Scam eta Crisis taldeek ez zuten jotzerik izan. Denial eta Inalectric taldeek eskaini zuten kontzertua.

**EUSKAL HERRIKO ARTISAUAK**
Zapatuko artisau feria eta XV. Azoka biologikoak ikusmin handia piztu zuen ohi bezala. Gutzi-



Mus txapelketan 32 bikote aritu ziren lehian. MIRARI ALTUBE



Xakean burubelarri, parte hartzaileetako batzuk. MIRARI ALTUBE




Jardunaldi gastronomikoek ere harrera bikaina, ohikoa den moduan. MIRARI ALTUBE

ra 50 artisau postuk –iaz baino 15 gehiago– ipini zituzten euren produktuak Durana kalean eta herriko plazan. Euskal Herriko artisauak ziren Aretxabaletara gerturatu zirenak; horien artean, iparraldetik, eta Nafarroatik etorriak, eta tartean aretxabaletarrik ere bai. Denetariko produktuak zeuden; baserrikoak, bitxiak, jostailuak, zapiak... Jende asko hurbildu zen feriara, Zubietako Zanpantzarrek eta Leizarra musika eskolako trikitilariek kaleak girotzen zituzten bitartean.

Arratsaldean izan zen Debagoieneko III. Jardunaldi gastronomikoen aurkezpena herriko plazan; bertan, Debagoieneko hainbat jatetxek –hala nola, Gatzagako Soran Etxeak, edota Basterralde eta Lasa jatetxeak– egindako pintxoak banatu zituzten, eta halakoetan ohikoa den moduan, herritar asko joan zen pintxoak dastatzera. Gauean, berriz, Baleike musika taldeak izan zuen herritarrak dantzan ipintzeko ardura, eta baita lortu ere.

**DOMEKAN ERE ETENIK EZ**

Biharamunak biharamun, domekan ere ez zuten hutsik egin aretxabaletarrek. Goizean herriko plazan egin zuten herri kirolen erakustaldian jende dezente bildu zen. Arratsaldean izan zen mus eta xake txapelketen txanda. Lehenengoan, 32 taldek hartu zuten parte, eta bigarrenean, aldiz, 16 urtetik beherako 10 taldek. Arrakasta handia izan zuen beste ekintzetako bat izan zen, atzo iluntzean herriko plazan Benito Lertxundiren omenez egin zuten kontzertua. Aretxabaleta Abesbatzak Leizarra musika eskolaren laguntza izan zuen.

**ATXILOKETEK GIROA NAHASTU**

Baina, dena ez da jaia izan asteburuan Aretxabaletan, izan ere, zapatuko herri bazkariaren aurretik Ertzaintzak lau pertsona atxilotu zituen, eta horrek kezka, haserrea eta ezinegona piztu zituen aretxabaletar askorengan.



Egubakoitzeko karaokea, jaietan murgiltzeko era bikaina. J.A.

**ANGIOZAR** > SAN MIGEL JAIAK

# Angiozarrera ere iritsi dira San Migelak, arrakastaz

## Danbor doinuekin hasi eta San Migelen zeruratzearekin amaituko dituzte, martitzenean

**M.A** > OÑATI

Angiozarren ere izan dute San Migel jaien bisita asteburuan. Egubakoitzean, danbor doinuek astindu zuten auzoa, eta Bergarako gazte bandak lagunduta, San Martin martxa eta Angiozarko martxa eskaini zituzten. Gauean herri afaria egin zuten eta ondorengo karaokean, ume, gazte zein helduk, abesteko dituzten abileziak erakutsi zituzten.

Zapatuan haurrendako jolasak egin zituzten plazan, eta Briska txapelketa ere egin zuten; hor, gainera, emakume askok hartu zuen parte. Gauean sardina jana egin zuten eta jende asko batu zen, eta eguraldi ona lagun, plazan egin zuten janaldia. Gauean dantzaldiaren txanda izan zen, eta DJ Oihan-ek sekulako festa giroa ipintzea lortu zuen. Saltoka eta brinkoka ibili ziren adin guztietako auzotarrak.

Atzo, berriz, Mikel Gallastegi auzoko pilotari gaztea omendu zuten; aurreskua dantzatu eta oroigarria eman zioten.

**MARTITZENEAN, BUKAERA**

San Migel eguna martitzenean izanik, orduan amaituko dituzte jaiak Angiozarren, San Migelen zeruratzearekin.



Aramaioko Sagarzaleen Elkartekoak sagar-zukua egiten OIHANE ISASI

**ARAMAIO** > SAGARDO EGUNA

# Sagardoa protagonista, egun osoko jaia ospatu zuten

## Sagardoaz gain, bertsolariak, trikitilariak eta jai giro ederra Aramaion

**M.A** > ARAMAIO

Asmatu zuten egunarekin Txirritola Euskara Elkartekoek eta Aramaioko Sagarzaleen Elkartekoek; eguraldiak lagunduta domeka goiza gustura pasatu zuten-eta aramaioarrek. Sagardo eguna izanik, hura izan zen eguneko protagonista. Badakizue, Aramaion oso preziatua dela eta hala, herriko 14 baserritatik jaitsi zuten etxean egindako sagardoa, plazan herritarrei eskaintzeko. Gainera, Aramaioko Sagarzaleen elkarteak sagarzukua egiteko tolarea atera eta erakustaldia ere egin zuen. Umeek ere izan zuten, beraz, sagar zaporea dastatzeko aukera.

Ohorezko txotxa orain erretiratu berri den herriko Zuriñe Mendialdua irakaslearen eskutik iritsi zen, eta goiza alaitzeko zeregina izan zuten ohi bezala, herriko trikitilariek eta bertsolariek.

GIZARTE ONGIZATEA > LARRIALDIKO ETXEBIZITZA

# "Etengabe beteta" egon da Arrasateko Larrialdiko Etxebizitza

Orain, zerbitzua osatzeko hezitzaileak kontratatzeko asmoa du Arrasateko Udalak

Sei lagunendako lekua dauka gaur egun Larrialdiko Etxebizitza jakin horrek

UBANE MADERA > ARRASATE

Joan den abenduan Arrasaten Larrialdiko Etxebizitza Zerbitzua abiarazi zutenetik, "etengabe beteta" egon da etxe hura. "Beharra dagoela argi geratu da", aditzera eman dute Udaleko Gizarte Ongizate Saileko ordezkariek.

Horrez gainera, iragarri dute laster osatu egingo dutela zerbitzu hori, hezitzaile zerbitzua hartuko dute-eta. "Espero dugu hurrengo hilean martxan ipintzea; orain zerbitzu horrek izan beharreko ezaugarriak aztertzen gabiltza, hezitzaileen kontratazioa abiarazteko", kontatu dute Udaletik.

**HEZITZAILEEN LANA**

Labur esanda, hezitzaile horiek Larrialdiko Etxebizitza Zerbitzuaren erabilera eta funtzionamendua zaindu egingo dute.

Horrez gainera, Larrialdiko Etxebizitzako bizilagunekin ere zuzenean egingo dute lan. Hain justu ere, etxe horretako egonaldiak sei hilabeteko muga dauka eta helburua da, muga horren barruan, gizarte zerbitzuen baliabideekin lan egitea, eta bazterketa egoeratik ateratzeko laguntzak ematea Larrialdiko Etxebizitzako bizilagunei.

Helburua da haiek aukera izatea sei hilabete pasatzean bizitza autonomoagoa izateko, euren kabuz lortzeko etxebizitza edo beste ostaturen bat, besteak beste.

Bestela esanda, Larrialdiko Etxebizitzaren bitartez, hasierako egoerari erantzuna ematen diote eta tarte bat ipintzen dute hainbat pertsonekin landu daitezkeenak eta aukera izan dezaten egoera larri horretatik ateratzeko. Adibidez, higiene eta osasun ohiturak bultzatzea, eguneroko bizitzan erantzukizuna sortzea, seme-alaben heziketa prozesuan gurasoei orientazioa ematea; formazioa eta lan arloa ere landuko dute; pertsonaren jarrera, ohiturak, gaitasunak eta trebetasunak hobetzen ahaleginduko dira, eta abar.

**EGONKORTZEKO ESKAERA**

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen atalean, Alternatiba-Zutik koalizioak eskaera egin dio Gizarte Ongizate Sailari egoera larrian dauden pertsonei ematen zaien zerbitzua "egonkortzeko". Eta horrekin batera eskatzen du, besteak beste, *Kafea eta Beroa* izenarekin ezagutzen den zerbitzua abiaraztea Arrasaten. Hau da, alojamenduaz gainera, jantoki soziala, kontsigna. dutxak eta bestelako zerbitzuak ere eskaintzeko eskatu dio Gizarte Ongizate Sailari.

Bada, aurrenengo eskaerari dagokionez, Gizarte Ongizate Sailetik erantzun dute egoera larrian dauden pertsonendako zerbitzu hori egon badagoela dagoeneko Arrasaten.

Bigarren eskaerari dagokionez, hau da, eguneko zelanbaiteko zerbitzuak emateko egindako eskaerari dagokionez (*Kafea eta Beroa*), aditzera eman dute azterketa egiten dabiltzala.

LARRIALDIKO ETXEBIZITZAREN EZAUGARRIAK

### Kale gorrian geratzen direnei laguntzeko

Larrialdiko Etxebizitzan sei lagunendako lekua dago. Izenak esaten duen moduan, larrialdi egoeran dauden bizilagunendako etxebizitza da. Sei baldintza ezarri ditu Udalak etxe horretarako bizilagunak onartzeko: kalean bizi izatea; pertsonen segurtasun fisiko edo emozionala arriskuan jartzen duten familia gatazka larria gertatzea; senitartekoren bat etxebizitzatik berehala ateratzea agintzen duen epaia baldin badago; epai irmoz aginduta-ko kaleratzeak (baliabiderik ez izateagatik ez ordaintzea, jabeak etxebizitza behar izatea, hondamen deklarazioak edo antzekoak); pertsonaren bizitoki den eraikina hondoa jotzeko zorian dagoela jotzea eta bestelako gizarteratze edo harrera zerbitzuren batean izan ondoren bizitza independentea egiteko egokitze epea eta prestakuntza behar duten pertsonek. Baldintza horietakoren bat betez gero, larrialdi egoeran dauden pertsonak berak egin beharko du etxebizitza eskuratzeko eskaera udaletxean.

## oharrak

KINTOAK
**> 1958ekoek, bazkaria**
Azaroaren 7an egingo dute bazkaria 1958an jaiotakoek, Baster-Alden. Gero dantza izango dutela ere iragarri dute. Joan gura izanez gero, honako kontu korrontean sartu behar dira 60 euro: 3035 0001 59 0011 14443 8.

KINTOAK
**> 1949koek, ibilaldia**
1949an jaiotakoek egun osoko ibilaldia egingo dute urriaren 24an, zapatua.

Izena eman behar da Lore edo Zabaleta lurrin-dendan, lehenbailehen, autobusa hartu ahal izateko jende kopurua jakin ahal izateko. 20 euro aurreratu behar dira.

ODOL EMAILEAK
**> Martitzena eta eguaztena**
Beste hitzordu bi egin dituzte odol-emaileendako: irailaren 29an eta 30ean, martitzen eta eguazten. Betiko moduan, 16:15etik 20:00ak bitartean joan beharko dute odola ematera, anbulatoriora.

TAILERRA
**> Gizonezkoendako tailerra**
*Aitaren papera seme-alaben heziketan* aztertuko dute irailaren 29an, martitzena, Kulturateko Loramendi aretoan, 19:00etan. Luis Cerron psikopedagogo, orientatzaile eta familia bitartekariak gidatuko du. 0-16 urteko neska-mutikoen gurasoei zuzendutakoa da hitzaldi hori.

ZERBITZUAK > LURRALDEBUS

# Eskualdeko Ospitalean geratuko da Lurraldebuseko autobusa

Ahalik eta lasterren egokituko dituzte geraleku bi; bata egongo da Zerrajerako urbanizazio parean


Zerrajerako urbanizazioan izango du geralekua Lurraldebusen autobusak. U.M.

UBANE MADERA > ARRASATE

Lurraldebus autobus konpainiak laster Eskualdeko Ospitaletik ere gelditukodа; izan ere, autobus geraleku bi izango ditu Eskualde Ospitalean. Hain justu ere, Lurraldebusen zerbitzuen barruan, Bertakoak izeneko autobus linea geratuko da ospitalean.

Eskoriatzatik Arrasaterako autobusa Zerrajerako urbanizazio berriaren parean geratuko da, gaur egun Arrasateko urbanoa geratzen den lekuan.

Bergaratik Arrasatera doan autobusa geratzeko, berriz, leku "probisional" egokia aztertzen dabil Arrasateko Udala. Hala jakinarazi dute udal iturriek.

**LURRALDEBUSEK ERE GURA DU**

Kontuak kontu, laster egokituko dituzte geralekuok ospitale inguruan,bi arrazoirengatik: batetik, "jendeak hala eskatu" duelako; eta bestetik, Lurraldebusek berak ere ahalik eta lasterren gura duelako ipini. Hain justu ere, urriaren 1erako gura zuen Lurraldebusek autobusen ibilbide berri hori abiarazi, baina "lehenengo, behar bezala aztertu behar ditugu pare bat puntu", azaldu dute udal iturriek.

OBRAK> ZARATEN KONTRAKO PANTAILAK

# Udalak eskatuta, zaraten kontrako pantailak ipintzen dabiltza saihesbidean

San Josepeko etxe multzoaren egoera ere azter dezala eskatu dio Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari

U.M. > ARRASATE

Musakolan ipintzen dihardute zaraten kontrako pantailak, Axerikoa baserriaren atzeko partean. Hain justu, hasita daude hesien hormigoizko oinarriak ipintzen.

Edozelan ere, horrekin bakarrik ez dago konforme Arrasateko Udala, uste duelako San Josepen ere beharrezkoak direla halako pantailak.

Hori horrela, eskatu dio Gipuzkoako Diputazioari azter dezala gune hura eta saihesbideko zirkulazioaren zaratak hango etxe multzoan duen eragina, "afektaturiko populazioaren arabera, pantailak jartzeko aurreikuspenetan toki horri lehentasuna eman diezaioten".

**DIPUTAZIOAK BAIETZ**

Diputazioan galdetuta, aditzera eman dute egingo dutela Udalak eskatutakoa. Baina azpimarratu dute berez Arrasateko saihesbideari ez dagozkiola zaraten kontrako pantailak ipintzea, Diputazioak 2005ean egindako Jarduketa Planaren arabera. Plan horretan bakarrik sartu ziren "urtean sei milioi ibilgailuko zirkulazioa" gainditzen zuten errepideak eta Arrasateko saihesbidearen kasua ez da hori.

Saihesbideko obren egoerari dagokienez, Oskar Rekaldek, Bidegiko ordezkariak, aditzera eman du hemendik urria amaitu bitartean "ahalik eta gehien aurreratu" gura dituztela, "benetako eguraldi txarra" iritsi baino lehen.

Juan Karlos Davila > Monte tabernako ugazaba

# "Porra pixkanaka joan da hazten, baina azken urteetako gorakada itzela izan da"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**Joan den eguaztenean banatu ziren Monte tabernako porran Espainiako itzuliko sariak: guztira 22.500 euro banatu ziren. Sariak handiak badira, apustu asko daudelako da; tabernako ugazaba eta porraren antolatzaile den Juan Karlos Davilak dioenez, "beste porrek baino diru gehiago banatzen dugu saritan, gutxiago hartzen dugu guretzako". Akaso horregatik jasotzen ditu horrenbeste kiniela Monteko porrak.**

**Zein da Monteko porra ospetsuaren jatorria? Noiz eta nola sortu zen?**

1992an egin zen lehenengoz, Enrique Alonso txirrindulari arrasatearrak Frantziako Tourrean parte hartu zuela-eta. Ordutik pixkanaka joan da hazten.

**Pixkanaka?**

Bai, pixkanaka ezagutzera eman bada ere, azken urteetan izan du gorakada nabarmena; itzela izan da. Gorakada horretan zerikusi zuzena izan du webgunea jarri izanak [*www.amasg.com*]; horrela jende askok apustua egiteko aukera izan du tabernara etorri barik. Adibidez, Espainiako itzulirako 200 apustu Internet bidez jaso ditugu. Webguneak, beraz, arrakasta handia izan du.

**Zergatik uste duzu dela Monteko porra Euskal Herriko ezagunenetarikoa?**

Banatzen dugun diru kopuruagatik; beste porrek baino diru gehiago banatzen dugu saritan. Gu %2'5arekin geratzen gara, gutxi gorabehera. Hau da, porra antolatzeko beharrezkoa zaigun dirua, besterik ez. Sari potoloak dira [Espainiako itzuliko irabazleak 9.000 euro eroan ditu] eta horrek jende asko erakartzen du.

**Sariak handiak izateko, apustu asko egon behar...**

Urtez urte gero eta parte hartzaile gehiago izaten dugu. Errekorra aurtengo Tourrean gainditu dugu, guztira 1.074 apustu jaso dira-eta. Gainera, hainbat toki ezberdinetatik ailegatzen dira kinielak. Euskal Herrian Bizkaia aldetik batez ere, eta Estatu mailan, Malaga, Madril eta Valentzia aldetik ere heltzen dira. Gainera, lana dela-eta hona etorri zen Txekiar Errepublikako txirrindularitza zale batek ere egiten du apustua.

**"Beste porrek baino diru gehiago banatzen dugu; horregatik izango da porra hain ezaguna"**

**"Azken urtean berdinketa asko izan dira, hori nola ekidin ari gara pentsatzen"**

DATUA

**1.074**

**PARTE HARTZAILE, ERREKORRA**

2009ko Frantziako Tourrean hautsi zuen Monteko porrak parte hartzaileen errekorra. Guztira 1.074 kiniela jaso ziren Monte tabernan eta Xantini txirrindularitza lagun taldearen webgunean.

**Aurreikusten duzue berritasunik datorren urtera begira?**

Bai, azken urtean izan ditugun berdinketa kopuru altua ikusita, hori nola ekidin ari gara pentsatzen. Aukera bat da bigarren etapatik aurrera sailkapen orokorrak ere puntuatzea. Oraindik zer egin pentsatzen ari gara.

**Zerbait gaineratzerik nahi?**

Eskerrak ematea parte hartzaile guztiei eta porra hau aurrera eroaten lagundu diguzuenoi.



Juan Karlos Davila, Espainiako itzuliko porraren sailkapena atzean duela. J.B.

**KULTURA** > LITERATURA

# Gaur zabalduko dute literatura solasaldietan izena emateko epea

Urriaren 15era arte izango da epea zabalik, euskarazko zein gaztelerazko solasaldietarako

Iban Zalduaren ordez, euskarazko saioen koordinatzaile Mikel Ayerbe izango da aurten

J.B. > ARRASATE

Aurten ere literatura solasaldiak antolatu ditu udal liburutegiak. Saioak urritik ekainera bitartean egiten dira, baina oraindik abendura arteko egitaraua bakarrik zehaztu dute. Hala, urritik abendura bitartean euskarazko eta gaztelerazko saio bana egingo da hilero, Kulturaten.

Solasaldiotan parte hartu gura duenak gaur hasi eta urriaren 15a artean izango du izena emateko aukera. Aurten berrikuntza nagusia da euskarazko saioak Iban Zalduak baino Mikel Ayerbek koordinatuko dituela.

**SOLASALDI BAT HILERO**

Euskarazko lehen saioan Rikardo Arregi izango da gonbidatu, urriaren 20an. Urriaren 28an, Joxean Agirre etorriko da –irudian– *Romain bere izena* liburuaren gainean berba egiteko. Azaroaren 25ean Philip Roth izango da Kulturaten *Suminez* liburua hizpide duela, eta abenduaren 16an Mikel Perurena izango da *Ez obeditu inori* liburua berbagai hartuta. Horra gaztelerazko saioak: urriaren 20an Francisco Umbral, azaroaren 17an Antonio Lobo eta abenduaren 15ean, William Maxwell.



Urriaren 28an Joxean Agirre izango da hizlari Kulturaten. ELKAR ARGITALETXEA

**EMAKUME TXOKOA**

# Egitarau berriaren aurkezpena, eguenean

J.B. > ARRASATE

Emakume Txokoak eta Jabetza eskolak atera dute urritik abendura bitarteko egitaraua. Urtero legez, denetariko ikastaro eta tailerrak antolatu dituzte. Bada eguen honetan, urriak 1, egitarauaren aurkezpen ofiziala egingo dute. Hau da, izena emateko epea amaitu eta hurrengo egunean egingo dute aurkezpena, izena eman dutenei zuzenduta, hain justu.

**DANTZA ETA KLOWN-A**

Aurkezpenean datorren hiruhileko egitaraua bera eta helburuak aurkeztuko dira. Eta horren ondoren Ijito dantzen erakustaldia izango da Jaione Albeniz adituaren eskutik. Ez hori bakarrik; dantza saioaren ostean Beatriz Egizabalek Klown emanaldia eskainiko du.

**ZERBITZUAK** > AGORROSIN EKINTZA GUNEA

# Eguneko, batez beste, 1.150 sarrera izan dute udako denboraldian Agorrosinen

Egunik jendetsuena uztailaren 15a izan zen: 2.339 sarrera zenbatu zituzten. Kirol batzordeak egin duen balorazioan hobetu beharrekoak ere azpimarratu dituzte

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Kirol batzordeak udako kanpainaren balorazioa egin berri du. Oro har, pozik azaldu dira kanpoko igerikelu berriak izan duen harrerarekin. Martin Etxeberria Kirol zinegotziaren esanetan, "herritar ugari" ibili da kanpoko igerilekuan eta hori "halako igerileku baten beharra zegoen seinale da", zinegotziaren ustez.

Kirol batzordeak badaki ere hobetu beharreko hainbat gauza ere badirela. Martin Etxeberriak halaxe esan du: "Garbi geneukan aurtengo udako denboraldirako martxan egon behar zela kanpoko igerileku berria, eta horrek eragin du gauza batzuk apur bat presaka egitea. Ondorioz, badakigu akats batzuk egon direla, besteak beste, berdegunean". Hain justu, berdegunearen eskuineko aldea lokaztuta egon da eta herritar ugari kexatu dira horregatik Agorrosingo harreran. Etxeberriak azaldu duenez,oraindik ez dakite zergatik gertatu den hori: "Uste dugu belarra jarri aurretik lurra gehiegi zanpatu zutela eta ura ezin izan dela iragazi. Eta azalean geratu dela lokatza sortuz". Eta gaineratu du: "Baina benetako arazoa zein den jakingo dugu Antzibar enpresak lurra jasotzen duenean,ordura arte ez. Jakinaren gainean daude eta berehala hasiko dira lanean".

Horrekin guztiarekin, akats hori eta egon diren beste batzuk datorren urterako konponduta egongo direla aurreratu du.

Tabernaren gaineko kexak ere jaso dituztela azaldu du zinegotziak. Hain justu, domeketan ez dutelako bazkaltzen eman. Horren harira esan du tabernaren funtzionamenduaz gain, espazioa beste modu batera antolatzeko erabakia ere hartu dutela. Udako eta neguko denboraldia bereizteko moduan antolatuko dute eta aztertzen dihardute hori nola egin. Aukeretako bat da pareta mugikorrak jartzea.



Ume eta gazteak izan dira kanpoko igerilekuarekin gehien gozatu dutenak. Jolas asko egin dute txirristekin eta txanpinoiarekin. GOIENKARIA

**JENDE ASKO**

Agorrosinera udan hurbildu den jende kopuruari dagokionez, batez beste 1.150 sarrera zenbatu dituzte eguneko. Hilabetez hilabete begiratuz gero, ekaineko egunik jendetsuena 30a izan zen. Egun horretan 2.151 sarrera zenbatu zituzten. Egunik tristeenean, berriz, 288.

Uztaileko –eta udakoa ere bai– egunik jendetsuena, uztailaren 15a izan zen, 2.339 sarrerarekin. Eta uztaileko egunik tristeenean 401 sarrera egon ziren. Abuztuari dagokionez, egunik arrakastatsuena 31 izan zen 1.781 sarrerarekin, eta tristeenean, 350 sarrera zenbatu zituzten.

**OSASUN-LAGUNTZA**

Uda osoan 44 osasun-laguntza egin dituzte Agorrosinen. Gehienak izan dira ebaki eta kolpeengatik; horietatik –39– kanpoko igerileku eta berdegunean. Bestetik, lauk baino ez dute ekintza gunetik kanpoko laguntza behar izan.

**KULTURA** > ORGANO KONTZERTUAK

# Organo erromantikoaren X. zikloak lau kontzertu ekarriko ditu urrian, San Pedro elizara

Urriaren 24an San Pedroko organoaren doinuek bat egingo dute Andoni Egañaren bertsoekin eta Jose Inazio Ansorenaren txistu doinuekin

**M.B.** > BERGARA

Urrian organo erromantikoaren nazioarteko zikloaren beste edizio bat egongo da; 10.a, hain justu ere. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Azkoitia, Azpeitia eta Bergarako udalek antolatu dute ohi bezala; eta guztira, hamabi kontzertu egongo dira ; lau, esandako herri bakoitzeko.

Bergarari dagokionez, datorren zapatuan, urriaren 3an, izango da lehen kontzertua. Hain justu ere, Fabiano Manero tronpeta jotzaileak Silvio Celeghin organistarekin jardungo du.

Bigarren saioa urriaren 10ean izango da, eta egun horretan egingo dute kontzertua Donostiako Orfeoiak eta Gerardo Rifon organistak. Urriaren 17an, berriz, Cyrill Schmiedlin organistak bakarka jardungo du.

San Pedro parrokiako organo erromantikoan egingo den zikloari amaiera emateko, emanaldi berezia egongo da. Hain justu ere, Andoni Egañaren bertsoek eta Jose Inazio Ansorenaren txistu doinuek bat egingo dute Aitor Olearen organoarekin.

Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira, eta aurreko urteetan bezala, ez da sarrerarik ordaindu beharra egongo.

**MUSIKA EMANALDI GEHIAGO**

Urriaren 11n Kataluniako Santa Coloma de Queralt herriko Orfeó Santa Colomak emanaldia egingo du Bergaran. 20:00etan izango da, Mariaren Lagundiako elizan.

Horrez gain, Udal Musika Bandak ere kontzertua egingo du urriaren 18an, Udal pilotalekuan 12:30ean.

> KULTURA

## Urrian hasiko dira zine klubeko filmak eskaintzen

Urrian hasiko dira Zabalotegi aretoan zine klubeko filmak eskaintzen. Dagoeneko zer lau film emango dituzten ere jakinarazi dute: hain justu ere, urriaren 8an *Bienvenidos al Norte* filma emango dute; urriaren 15ean *Vals con Bashir* ikusteko aukera egongo da; urriaren 22an *Honeydripper Blues bar* eta urriaren 29an, berriz, *La Clase* emango dute.

Film guztiak Zabalotegi aretoan izango dira, 20:00etan. Prezioari dagokionez, 2 euro balio ditu sarrerak eta leihatila irekiko dute saio bakoitza baino ordubete lehenago.



Josten jakiteko oinarrizkoa erakutsiko dute udalak antolatutako ikastaroan. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > IKASTAROAK

# Barreterapia, joskintza eta film laburren tailerra hasiko dira urrian

Udaleko Kultura Sailak antolatu ditu eta dagoeneko zabalik dago izenematea; herritar guztiei daude zabalik eta urri erdialdean hasiko dira

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaleko Kultura Sailak beste hiru ikastaro antolatu ditu: film laburren tailerra, barreterapia eta joskintza hastapena, hain justu. Kultura Sailak hiruhileko ikastaroak antolatu zituen iazko ikasturtean ere, eta, izandako harrera ikusita, aurrera jarraituko du aurten ekimenarekin.

Film laburren tailerrari dagokionez, urriaren 15ean hasi eta azaroaren 5era arte izango da, eguenetan, 19:00-21:00 ordutegian, kultura etxean.

Barreterapiaren kasuan, urriaren 21ean hasiko da ikastaroa eta abenduaren 16ra arte iraungo du. Eskolak izango dira eguaztenetan, 19:00-21:00 ordutegian, Zabalotegi aretoan.

Joskintza ikastaroari dagokionez, urriaren 13an hasiko da eta bukatu, abenduaren 29an. Eskolei dagokienez, martitzenetan izango dira, 18:30-20:30 ordutegian, Anezka akademian.

**IZENEMATEA ZABALIK DAGO**

Ikastaroen prezioa da 15 euro hilean Bergaran erroldatutakoendako eta 20 euro, Bergaratik kanpokoendako. Ikastarootan izena emateko epea zabalik dago. Izena emateko, deitu 943 77 91 60 zenbakira.

## oharrak

KINTADA

**> 1968an jaiotakoek kinto afaria egingo dute**

Urriaren 24an egingo dute. Izenematea da urriaren 15a baino lehen, Deportivo tabernan. 10 euro aurreratu behar dira.

KILOMETROAK 09

**> Aranzadik Kilometroak jairako autobusa antolatu du**

Aranzadi ikastolak autobus zerbitzua antolatu du urriaren 4an Donostian izango den Kilometroak jaira joateko. Txartelak eskura daitezke irailaren 30era arte ikastolako idazkaritzan. Autobusa abiatuko da 10:00etan eta 19:30ean itzuliko da.

IZENEMATEA

**> Zabalik dago izenematea Eskola kirolean**

Urriaren 2ra arte dago zabalik. Gaur hasiko da lehen jarduera, saskibaloia. Jardunaldiak urriaren 3an hasiko dira.

IKASTAROA

**> Sorosle eta sorospen ikastaroa urrian DYArekin**

Urriaren 5ean hasi eta 26ra arte izango da, 19:00-21:00 ordutegian, astelehenetik egubakoitzera, kultura etxean. Ikastaro amaierako probak gainditzen dituenak sorosle titulua eskuratuko du. Izena emateko edo informazio gehiagorako deitu 943 46 46 22 zenbakira.

IZENEMATEA

**> Xipizaro ludotekan izenematea zabalik dago**

Izena Xipizaro ludotekan emango da, 17:00-19:00 ordutegian (Agorrosingo Ekintza Guneko lehenengo solairuan).



GOIENKARIA

## San Joxepe koroa Angiozarren

San Joxepe erretiratuen abesbatzak emanaldia egingo du martitzenean, hilak 28, Angiozar auzoko San Migel jaien barruan. 11:00etako meza nagusian abestuko dute lehenengo eta meza amaitu eta gero egingo dute kontzertua. San Joxepetik adierazi dute kantu herrikoiak abestuko dituztela.

## Cantero eta Gurrutxaga Gure Ametsan

Benito Cantero eta Jose Agustin Gurrutxaga argazkilariek erakusketa jarriko dute San Antonio auzoko Gure Ametsa elkartean. Hain justu, egongo da ikusgai urriaren 5etik 18ra bitartean.

Bergararrek *20 urte hegaletan* izenburua eman diote erakusketari. 1988an erabaki zuten argazkiarekiko zaletasuna mendi jarduera ezberdinetarantz bideratzea –alpinismoa, mendi bizikleta, izotz eta harkaitz gaineko eskalada...– eta erakusketa hori da erabaki haren emaitza.



JOSE AGUSTIN GURRUTXAGA



Autobusak postetxearen aurreko geltokian geratzen dira dagoeneko. Une honetan postetxearen atzealdean dihardute lanak egiten. MIREIA BIKUÑA

**LANAK** > MADRILGO GOBERNUAREN E PLANA

# Postetxe inguruko urbanizazio lanak martxa onean doaz

Egunotan, Guardia Zibilaren kuartelaren aurrealdean urbanizazio lanak egiten dihardute

Euskadi etorbideko irisgarritasun lanak eta kanposanturako bideko lanak bukatuta daude

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Madrilgo Gobernuaren Estatu Fondotik jasotako diruarekin finantzatutako lanak martxa onean doaz. Hala, postetxearen inguruan egiten dihardute lanak bukatzea falta da. Kanposanturako bideko lanak eta Euskadi etorbideko irisgarritasun lanak duela aste batzuk bukatu zituzten.

Madrilgo Gobernuak emandako baldintzen arabera, lan guztiak azaroaren 31rako bukatu beharko dituzte. Oñatikoak martxa onean doaz, eta, azken orduko ezustekorik ez badago, epeak bete egingo dituzte.

**PARKEA ETA JOLASLEKUA**

Une honetan, postetxe atzealdean dihardute lanak egiten. Guardia Zibilaren kuartelaren aurrean parkea eta jolaslekua egokituko dituzte. Bestalde, aurrerago, Ibarra aldera doan bidegorria pasako da postetxe atzealdetik. Gainera, Cegasa aurreko biribilguneko lanak bukatzen dihardute. Lizaur kaletik doazen autoek saihesbiderako bidea har dezakete dagoeneko.

**1,9 MILIOI EURO**

Kanposanturako bidean hainbat lan egin dituzte; besteak beste, horma eta kanposanturako oinezkoen bidea konpondu eta bizikletendako bidegorria egin dituzte. Aurrerago, kanposantuko bidearen parean jolaslekua egokituko dute. Gainera, Euskadi etorbide inguruko oztopo arkitektonikoak kendu egin dituzte.



Kanposanturako bideko lanak abuztuan bukatu zituzten. GOIENKARIA

Udalak 1,9 milioi euro jasoko ditu Madrilgo Gobernutik lanok egitearren: 720.000 euro postetxeko autobus geltokia berritzeko, 718.000 euro kanposanturako bidea konpontzeko eta 467.000 euro Euskadi etorbideko irisgarritasun lanak egiteko.

**JAIAK**

## Oñati hiru egunetan jaietan murgilduta

Txantxikuaren jaitsierarekin hasiko dira jaiak gaur, 20:00etan

**M.B.** > OÑATI

Txantxikua parrokiako kanpandorretik txosnagunera jaisten denean hasiko dira sanmigelak Oñatin, eta hiru egunetan festa izango da nagusi. 23:00etan nagusien danborrada egingo dute herriko kaleetan eta bukaeran, *Euskal Presoak Euskal Herrira* lelopean manifestazioa egingo dute. Lisker taldekoek egingo dute dantzaldia plazan.

**SAN MIGEL EGUNA**

Biharko iragarrita dauden ekintzetan ez dago berrikuntza askorik. Herri mailako plater tiroketa egingo dute Txopekuan, haurrendako parkea Etxaluzen eta musika bandaren kontzertua plazan. Berrikuntza bakarra da Makalena elkartekoek 18:30ean plazan egingo duten antzerkia. Bihar, 22:30ean, tangoak izango dira protagonista plazan, Cuarteto Tango Querido taldearekin.

Txosnagunean, berriz, koadrilen arteko olinpiadak, Eriz magoaren ikuskizuna eta DJ Kirrinen emanaldia iragarri dituzte.

**BIXAMONA**

Etzi, jolas erraldoien parkea jarriko dute umeendako plazan. Ondoren, jota kontzertua egingo du La Ribera Canta taldeak. 17:00etan, sokamuturra izango da eta 19:30ean Senegalgo Jammu perkusio taldeak kalejira egingo du.

**txistuak**

## Sarrera noiz konponduko dute?

Irakurle batek ondoko argazkia bidali digu Kalegoienako lur azpiko aparkalekurako sarreraren egoera salatzeko. "Duela sei bat hilabetetik atea eta kristalak apurtuta daude. Aparkalekuaren goialdean jolasparke bat dago eta ume asko ibiltzen da han. Egunen baten istripuren bat geratuko da. Noiz konponduko dute oinezkoen sarrera? Dagokionak egin dezala zerbait".



GOIENKARIA

**oharrak**

ERAKUSKETA

**> Ageriko pintura lehiaketa lanak ikusgai kultura etxean**

Atzo egindako pintura lehiaketako lan onenak eta irabazleek eta pintura ikastaroetan jardun duten ikasleek egindako lanak ikusgai daude kultura etxean urriaren 12ra arte. Hain zuzen ere, astelehenetik domekara arte, 18:00etatik 20:00etara.

DEIALDIA

**> 1967an jaiotakoek kinto afaria egingo dute urrian**

1967anAretxabaletako Baster-Alde jatetxean egingo dute afaria urriaren 24an. Interesatuek izena eman dezakete urriaren 10a baino lehen. 20 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005350051035631 zenbakidun kontu korrontean. 20:00etan elkartuko dira Txurruka tabernan eta 20:30ean autobusa hartuko dute afaltzera joateko.

HITZALDIA

**> Eklipseen gaineko hitzaldia eguenean**

Eguzki-eklipseen gaineko hitzaldia egingo du kultura etxean Durangoko astronomia gelako zuzendari Esteban Estebanek. Hain zuzen ere, *Eclipses de sol: eclipse total en Oñati y otros eclipses* delako hitzaldia egingo du eguenean, 19:00etan.

**ARETXABALETA** > KIROLA

# Salgai daude kirol etxeko gimnasioko hamabi makina

Esandako materiala ikusi nahi dutenek urriaren 15era arte izango dute aukera

Kirol Zerbitzutik azaldu dutenez, eskaintza onenari esleituko diote materiala





Materiala urriaren 15era arte ikusi ahalko da; interesatuek Kirol teknikariarekin jarri behar dute harremanetan. MIRARI ALTUBE

**MIRIAN BITERI** > ARETXABALETA

Aretxabaletako kiroldegi zaharreko gimnasioan zegoen materiala salgai jarriko du Udalak. Guztira, hamabi makina jarriko dituzte herritarren eskura.

Hain zuzen, arrauna egiteko hiru makina dituzte salgai, 200 eta 560 euro artean; korrika egiteko zinta bi, 950 eurotan bakoitza; hiru bizikleta, 750 eta 1.850 euro artean; MAG Reclimber izenekoa, 250 eurotan; Magnetic Steeper makina, 1.315 eurotan; eta eliptiko bi, 1.175 eta 1.150 eurotan.

**IKUSGAI URRIAREN 15ERA ARTE**

Aretxabaletako Udal Kirol Zerbitzutik jakinarazi dute dagoeneko ikus daitekeela esandako materiala. Interesa dutenek urriaren 15a baino lehen ikusi ahalko dute. Horretarako, udal teknikari Asier Muxikarekin jarri beharko dute harremanetan. Hiru bide daude horretarako: Iralabarri kalean dagoen kirol bulegora bertara joatea, 943 71 10 27 telefono zenbakira deitzea edo *kirola@aretxabaleta.net* helbidera idaztea.

Makina bakoitzaren gaineko eskaintza egin ahalko da. Horiek aurkezteko orriak eskura daude kirol bulegoan. Behin epea itxita, eskaintza guztiak batu eta onenari esleituko diote eskatutakoa. Materialaren garraioa eroslearen kontura doala eta fakturak egingo direla azaldu dute.

**ARETXABALETA**

## Aldaketak daude autobus zerbitzuan

Udalak, Pesa autobus konpainiak eta Diputazioak hitzartu dituzte

**M.B.** > ARETXABALETA

Urriaren 1etik hainbat aldaketa izango dira Aretxabaletan autobus zerbitzuaren ordutegian. Udalak, Pesa autobus konpainiak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzartu dituzte aldaketok.

Esaterako, Donostiatik 21:00etan irteten zen zerbitzua, lehen Arrasaten amaitzen zena, Eskoriatzaraino iritsiko da. Bestalde, Eskoriatzatik Donostiarako autobusa egongo da 06:45ean astelehenetik egubakoitzera; eta domeka eta jaiegunetan, 10:15ean. Arrasatetik zerbitzu hori zabalagoa izango da: 08:35ean hasita orduro egongo da 20:35era arte. Astelehenetik egubakoitzera, berriz, Gasteiz eta Arrasate lotuko dituen autobusa egongo da 07:00etan.

**AZAROAREN 1ETIK**

Azaroaren 1etik, azkenik, Eibar-Gasteiz artekoak orduro egongo dira 08:05etik 20:05era arte. Eskoriatzan autobidea hartuko dute horiek.

**ESKORIATZA** > HAURRAK

# Matrikula epea zabalik Tortolisen

Gaurtik eguaztenera bitartean ate irekiak egingo dituzte, instalazioak gertutik ezagutarazteko

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eskoriatzako Tortolis ludotekak matrikulazio kanpaina zabaldu du dagoeneko; eta, hori dela-eta, datozen egunotan ludotekako instalazioak gertutik ezagutzeko aukera izango dute guraso eskoriatzarrek. Hango arduradunek ate irekiak antolatu dituzte gaurtik, astelehena, egubakoitzera bitartean. Interesa dutenek arratsaldez joan beharko dute hara, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

Instalazioak ezagutzeaz gain, 2009/10 ikasturtean izena eman daitekeela jakinarazi dute hango arduradunek. Horrekin batera, gaineratu dute eguenean, urriak 1, hasiko dela ludoteka normal funtzionatzen; hau da, txandaka haurrendako ekintzak antolatzen.

**BI TXANDA**

3 eta 12 urte bitarteko neskamutikoei zuzenduta dagoen jolasgunea da ludoteka. Astelehenetik egubakoitzera bi txandatan zabaltzen da hori: 3 eta 6 urte bitartekoendako, 16:30etik 18:00etako ordutegian; eta 7 eta 12 urtekoendako, 18:00etatik 19:00etara bitartean.

Eskaintzen diren zerbitzuen artean, jolasen mailegua dago. Bazkideei aukera ematen zaie jostailuak etxera eramateko, maileguan. Horretaz gain, ekintza bereziak antolatzen dituzte; esaterako, Gabonetan.

Horren gainean, informazio gehiago gura nahi izanez gero, 943 71 49 21 telefono zenbakira dei daiteke edo Tortolis ludotekara bertara joan (Santa Ana 19).



Umeak Tortolis ludotekan jolasten. IKER BARANDIARAN

**oharrak**

KINTADIA

**> 1959an jaiotakoek bazkaria egingo dute urriaren 24an**

1959an jaiotako eskoriatzarrek bazkaria egingo dute urriaren 24an. Bazkaria 14:30ean izango da Apotzagako elkartean. Interesa dutenek 50 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 3035 0044 8 4 044.1.035241 kontuan urriaren 9a baino lehen.

HITZALDIA

**> Marisol Rebollok larruazalaz hitz egingo du gaur**

Gaur, astelehena, Marisol Rebollo adituak larruazalaren zahartzearen gaineko berbaldia egingo du. Hitzordua 18:30ean jarrita dago, kultura etxean. Betiko moduan, hitzaldi horretarako sarrera librea izango da.

INFORMATIKA

**> Ikastaroak daude eguaztenean Eskoriatzako KZgunean**

Eguaztenean, irailak 30, Aitor Madrid tutorea Eskoriatzako KZgunean egongo da, 16:30etik 20:00etara.



Ama eta alaba txikia elkarrekin ipuin bat irakurtzen. SERGIO AZKARATE

**ARAMAIO** > HEZKUNTZA

# Bularretik Mintzora kanpaina aurkeztu dute

Helburua da haurrengan irakurketa ohitura sustatzea guraso eta irakasleen eskutik

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Galtzagorri Elkarteak Bularretik Mintzora kanpainaren aurkezpena egin zuen Aramaion pasa den egubakoitzean. Kanpaina horren helburu nagusia da 0 eta 6 urte bitarteko haurrengan irakurketa ohiturak sustatzea gurasoekin eta haien hezitzaileekin. Kanpainaren arduradunek adierazi dute irakurketa oso garrantzitsua dela haurraren garapenean eta "haurrari irakurtzen ematen diogunean haurraren garapen intelektuala, emozionala, soziala eta hizkuntzarena estimulatzen ditugula". Gaineratu dute haur txiki bati irakurtzen diogunean komunikazio afektibo bat sortzen dela bera eta bere helduen artean.

**FORMAZIOA**

Orain arte aipatutako guztia lortzeko guraso eta irakasleak formatzea da Bularretik Mintzora kanpainaren helburua. Horretarako hitzaldiak eskainiko dituzte eta baita ikastaroak ere. Pello Añorga ipuin kontalari eta idazleak *Helduentzat nola kontatu, irakurri, begiratu liburu bat* izenburua duen ikastaroa eskainiko du. Hitzaldiak urriaren 15, 22, 28 eta 29an izango dira, 18:00etan kultura etxean. Juan Karlos Alonso psikologoak, bestetik, hitzaldi bat eskainiko du azaroaren 3an haur literaturak haurraren garapenean duen eraginaren gainean. Horrez gain, Juan Kruz Igarabide poetak eta Itziar Zubizarreta irakasle eta narratzaileak ere emango dituzte hitzaldiak; bi jardunaldi horien datak zehazteke daude oraindik. Dena dela, antolatzaileek azaldu dute hitzaldien egunak eta orduak guraso eta irakasleekin batera adostuko direla eta posible dela aldaketak egotea.

**LEINTZ GATZAGA** > DEIA

# Auzo egurraren zozketan parte hartzeko eskaera epea zabalik dago urriaren 5a arte

Onura publikoko mendietan dagoen egurra eska dezakete herritarrek; Udalak zozketa egingo du izena emandakoekin

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Erabilera publikoa duten mendietatik ateratako egurra zozketatzen du urtero Udalak, eta izenemate epea dagoeneko zabalik dago. Urriaren 5a bitartean egin behar dute herritarrek eskaera udaletxean.

Izena emateko baldintza bakarra dago: Gatzagan erroldatuta egotea. Eskaera egin duten horien artean egingo dute ondoren zozketa, baina izenemate epea bukatu arte ez dute zehaztuko zein egunetan. Zozketa jendaurrean egingo dute urtero legez; hortaz, aurrez iragarriko du Udalak noiz izango den.

**ESKAEREK BEHERA**

Egurraren eskaera kopurua zenbatekoa den jakindakoan basozainak lursailak gertatuko ditu Gatzagako mendian, eta zenbat egur har dezaketen zehaztuko du. Zozketa egindakoan, ostera, bakoitzari zein lursail tokatu zaion jakingo dute eskatzaileek, eta bertara joan beharko dute egurra moztu eta gertatzera, gero etxera ekartzeko. Azken urteotan eskaera kopuruak behera egin duela herrian jakinarazi dute udaletxean; izan ere, lan handia eskatzen du basoan dagoen egur horrek, nahiz eta garestia ez izan. Prezioa Aldundiak ezartzen du.

Udalak eta Foru Aldundiak elkarlanean egiten diete jarraipena Gatzagako mendiei eta zeinek duen egurra kendu eta garbitu beharra zehazten dute. Urtero egiten den lana da eta basoa txukun mantentzeaz gain, biziberritzeko izaten da.

**ANTZUOLA** > ODOL EMAILEAK

# Odol ateratzea izango da eguenean Olaran etxean

Azken odol ateraldian ohi baino jende gutxiago izan zela eta kezkatuta daude Odol Emaileen Elkartekoak

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Antzuolako Odol Emaileen Elkartekoek dei egin nahi diete antzuolarrei datorren urriaren 1ean, 17:30etik aurrera, Olaranera joan eta odola emateko.

Elkartekoen esanetan, maiatzean, ohi baino jende gutxiago joan zen. "Gehienetan 80 lagun inguru izaten dira eta maiatzean ez zen emaileen kopurua 70era iritsi; 10 lagun gutxiago asko da guretzat", esan digute elkartekoek.

Gazte batzuk hasi omen dira joaten, baina gehienak 40-50 urte ingurukoak direla ere jakinarazi digute. "Jende berria behar dugu, gerora ere odola ematen jarraituko dutenak".

**BALDINTZAK**

Odola emateko bi baldintza nagusi bete behar dira: 18 urtetik gorakoa izatea eta 50 kilotik gora pisatzea. Lehen aldiz odola ematera doazenei galdeketa odol analisia egingo diete.



Odol emaileek 17:30ak ondoren joan beharko dute Olaranera GOIENKARIA

**ELGETA** > KULTURA

# Espaloiak gertu dauka udazkeneko egitaraua

Xabier Letek poesia emanaldia egingo du eta Garik '16 lore' diskoa aurkeztuko du

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Barikuan Yllana taldea izan zen kafe antzokian, eta ikuskizun horrekin eman dio hasiera Espaloiak udazkeneko egitarauari. Datozen hiru hilabeteetarako hamar proposamen egiten dituzte Elgetako kafe antzokitik; ikus-entzunezkoak, musika emanaldiak, antzerki ikuskizunak eta erakusketak, besteak beste.

**SONA HANDIKO IZENAK**

Espaloitik pasatuko dira hilabete hauetan Xabier Lete, Gari, Iker Galartza, Joseba Usabiaga, Carlos Lozano eta Belinda Washington. Akaso ez da hain ezaguna, baina Elgetan izango dira halaber, Luthea Salom taldea. Grammy saria irabazi zuen 2001ean *Out Of Without* diskoarekin eta rock eta jazz doinuak egiten ditu. Jazz doinuak ekarriko ditu, baita ere, Zimbaweko Mokoonba taldeak.

**HERRITAR BATEN ERAKUSKETA**

Bi erakusketa hartuko ditu kafe antzokiak hemendik eta urte amaierara bitartean. Abendukoa Manolo Montiel elgetarrarena izango da. Gipuzkoa osoan zehar ibili da arraza ezberdinetako txakurrei argazkiak ateratzen. Egindako lana erakutsiko du kafe antzokian *Ezagutu Gipuzkoa: txakurrak herriz herri* izeneko argazki erakusketaren bitartez.

**ZINEKLUBA EGUAZTENERO**

Aste barruan, berriz, eguaztenero zineklub saioekin jarraituko dute kafe antzokian. Saio horiek ez dute udan etenik izan eta abendura bitartean 13 filmekin osatutako programa kaleratu du Espaloiak.

# Kirola



**> AUTO LASTERKETAK** Aitor Zabaleta izan da azkarrena IV. Udanako igoeran **> 22-23**



**> FUTBOLA** Hirugarren mailako UDAk banako berdinketa lortu du Eibarren aurka**> 24**



**> BORROKA** Maider Unda brontzezko domina lortu du Munduko txapelketan **> 26**

**ESKUBALOIA** > ALOÑA-HANDBOL SANT FOST

# Handbol Sant Fost katalanekin eskubaloi festa egin zuen Aloñak

**URTEURRENA** Handbol Sant Fost Granollerseko taldeak 50. urteurrena ospatzen dihardu

**SENIDETZEA** Datorren urteko irailean Oñatikoak joango dira hara jokatzera

**GIRO BIKAINA** Bi taldeetako jokalariek egun polita igaro zuten elkarrekin




**ELKARREKIN** Handbol Sant Fost eta Aloñako jokalariak elkarrekin, partidu atarian; Irailean oñatiarrek bisita itzuliko diote katalanei. JOSETXO ARANTZABAL

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Aloña Mendik eta Granollerseko Handbol Sant Fost taldeak eskubaloi festa egin zuten zapatu arratsaldean Oñatin. San Migel jaietako eskubaloi txapelketa katalanek eraman dute aurten, Aloña Mendiri 33-22 irabazi ondoren. Edozein modutan, emaitza gutxienekoa zen; eskubaloia aitzaki hartuta, bi taldeak senidetzea zen helburu nagusia. Granollerseko taldeak 50. urteurrena betetzen du aurtengo denboraldian eta ospakizunen barruan, Oñatira etorri dira asteburua pasatzera. Eskubaloian jokatzeaz gain, Sanmigeletan murgiltzeko aukera ere izan dute katalanek.

**KATALANAK, ERRAZ**

Partiduari dagokionez, katalanak uste baino errazago nagusitu ziren. Bi taldeak ere maila berean lehiatzen badira ere (Kataluniako ligan bata eta Euskadikoan oñatiarrak) sasoi puntu hobea erakutsi zuten Handbol Sant Fosteko jokalariek. Lehen zatian lau goleko abantaila zeukan Julio Lopez Laorden jokalari ohiak zuzendutako taldeak, 10-14. Bigarren zatian, bi taldeek ere intentsitate gutxiagorekin jokatu zuten eta batera eta bestera izan ziren erasoko jokaldiak. Azkenik, 11 goleko aldearekin irabazi zuten katalanek.

**CARLOS JIMENEZ, ONENA**

Golegileei dagokienez, Carlos Jimenez izan zen partiduko golegile nagusia, 9 gol sartuta. Era berean, jokalari onenari dagokion trofeoa eraman zuen jokalari katalanak. Oñatiarren partetik, Joxe Garciaklau gol egin zituen eta hiruna gol egin zituzten Unai Patak, Asier Urrutiak eta Iker Lamasek.

Mikel Mantxolak izan zuen zapatuan Aloñaren ardura, Francisco Benito eta Juanjo Arrizabalaga entrenatzaileek beste konpromiso bat zutelako. Mantxola pozik zegoen euren taldeak erakutsitakoarekin. Adiskidetasun partiduak albo batera utzi eta lehian hasteko ordua iritsiko zaie laster. Mantxolaren hitzetan, "talde beteranoa da Sant Fost, esperientzia handikoa eta guk, berriz, jokalari berri dezente ditugu. Baina liga gertatzeko eta, bide batez, beste talde batekin harremanak sendotzeko primeran etorri zaigu partidua. Ezin hobeto atera da guztia eta oso pozik gaude"

Datorren zapatuan, urriaren 5ean, emango diote hasiera Aloñakoek ligari. Zumaian, Pulporen aurka jokatuko dute lehenbiziko partidua, zapatu goizean.

## Senidetze baten lehenbiziko urratsa

Guztira, jokalari eta lagunak zenbatuta, 80 lagun inguru izan ziren zapatuan Granollersetik Oñatira (614 kilometro) etorri zirenak. Oñatiarrek ongi-etorri ederra prestatu zieten: zapatuko bazkaria eta afaria Oinarri elkartean egin zuten bi taldeek. Domeka goizean, jaiekin ederto gozatu ondoren, zuzenean autobusera igo zen jokalari katalan bat edo beste ere egon zen. Soraluze eta Arantzazun hartu dute ostatu katalanek. Hurrengo irailean oñatiarrek bisita itzuliko diete katalanei.



Oinarri elkartean bazkaldu eta afaldu zuten bi taldeek zapatuan. ALOÑA




Lopez Laorden eta Mantxola. ALOÑA

Goienkaria
ASTELEHENEKO
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Iraileko irabazleak

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
Kuota: 20 euro

ZIRA
Andoni Altzelai Guridi
(Arrasate)

AQUARIUM-ERAKO BI SARRERA
Ekaitz Osa Zabaleta
(Oñati)

UMEENDAKO LIBURUAK
Mikel Lasa Palacios
(Bergara)

PENDRIVE BAT
Bittor Bengoa Altuna
(Zarautz)

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



**AHTEC NETBOOK LUG N011**
**Sistema eragilea:** Ubuntu Linux.
**Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb).
**Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB).
**Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA.
**Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED.
**Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea.
Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik
• Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
• Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
• Informatika eta teknologia berrien produktuak.
Amillaga 32 • 943 76 59 60
(auto garbigailu ondoan)
Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

**AUTO LASTERKETAK** > UDANAKO IGOERA

# Udanan irabazita, Mendiko txapela lortu du Zabaleta bergararrak

## Zabaletak bi minutu eta bederatzi segundotan egin zituen 4,2 kilometroak

## Zazpi urteren ondoren, motor hotsa eta giro aparta Oñatiko lasterketan

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI
Aitor Zabaleta nagusitu zen zapatuan Udanako mendatean. Garaipenarekin bergararrak matematikoki lortu du Euskadiko Mendiko Txapelketa. Lasterketa amaieran aitortu zigun garaipena lortzeko faboritoa izan arren, gogor egin behar izan zuela lan proba irabazteko. Izan ere, Ruben Nogueiras *etxeko* pilotuak zail jarri zizkion gauzak Zabaletari.

**ARAZORIK EZ UDANAN**
Aurreko astean bota zuen Aramaion bota beharreko euri guztia; zapatuan, Udanan, eguraldia lagun, arazo barik hasi zuten proba.

57 pilotuk eman zuten izena proban parte hartzeko, baina irteera puntura 53 agertu ziren. Hiru ekinaldi egin zituzten pilotuek 4,2 kilometroko igoeran; lehenengoa entrenamendu saioa izan zen eta beste biak lasterketarako puntuagarriak.

Aitor Zabaletak hasieratik erakutsi zuen zergatik den Euskadiko txapelduna: lehenengo txandan 2:09,68ko denbora behar izan zuen Udana igotzeko Lola BMW autoak. Lau segundo gehiago behar izan zituen Nogueirasen Silver Car autoak: 2:15,05 Udanan gora.

**ZABALETA JAUN ETA JABE**
Bigarren txandan Nogueirasek gehiago estutu zuen Zabaleta; baina, hala ere bergararrak eroan zuen garaipena. Zabaletak 2:09,88ko denbora egin zuen eta oñatiarrak 2:14,81. Hirugarren sartu zen, Nogueirasen atzetik oso gertu, Alberto Alonsoren Speed Car GT-R autoa –2:14,84–. Oñatiarra lehenengoa izan zen bere kategorian –klase 6–.



Batez ere Udanako *paelletan* batu zen jendea; iruditan, Joseba Sanzen Peugeot 309a.



**David Ardions**

"Gustura geratu naiz egindako lanarekin. Nire kategorian lehenengoa izan naiz, eta sailkapen orokorrean 13.a. Etxean jokatzeak bere alde onak eta txarrak ditu, baina esan behar da polita izan dela ezagunen aurrean ibiltzea. Datorren urtean, berriro".



**'Juanon' Zelaia**

"Autokrosean ibilitakoa naiz, baina lehenengo aldia da igoera bat egiten dudana. Madrilen ibili naiz entrenatzen, eta gaur lehenengoz parte hartu dut. Oso gustura ibili naiz, sentsazio onak izan ditut. Gainera, etxekoen aurrean ibiltzea berezia da".



**Igor Orobengoa**

"Nik normalean rallyak egiten ditut; ezberdintasun handia dute igoerekin. Hemen kopilotuaren laguntza barik irteten gara... Lehenengo aldia da Udanako igoeran parte hartzen dudana, eta gustura geratu naiz egindako lanarekin ".



Behin gora igota, pilotu guztiak Udanako gainean ilaran, mendatea jaitsi eta bigarren igoera hasteko gertu. A.E.



Mikel Macias Citroen autoko gurpila aldatzen. A.E.

**IBARREKO PILOTUAK**

Debagoieneko pilotu asko izan ziren zapatuan Udanan; tartean, zazpi oñatiar. Nogueirasen lanaz gain, aipatzekoa da Aitor Ramirez, *Juanon* Zelaia eta David Ardionsen lana. Ramirez laugarrena izan zen sailkapen orokorrean –2:24,51– eta lehenengoa bere kategorian –klase 5–. *Juanon* zortzigarren sailkatu zen –2:29,86–; eta, David Ardions 13.a izan zen orokorrean –2.37,17– eta lehenengoa bere kategorian –klase 2–.

Aitor Arnaiz –2:43,48–, Antonio Merino –2:46,94– eta Sergio Porcel –2:51,96– pilotuek lan oso ona egin zuten etxekoen aurrean. Kontuan hartu behar da lehenengoz parte hartzen zutela lasterketa batean. Bestalde, Igor Orobengoa garagartzarra 15. sailkatu zen –2:39,96– eta, Mikel Otxoa aretxabaletarrak 3:03,81ko denbora egin zuen.

**'PAELLAK', BETETA**

Zazpi urteko isilaldiaren ondoren, motor hotsa itzuli zen Udanara zapatuan. Antolatzaileak oso gustura geratu ziren: "Jende asko etorri da, eta ez da arazorik egon lasterketan. Benetan, ondo joan da dena". Udanako errepide bazter guztietan zeuden ikusleak, baina batez ere jendez lepo zeudenak lau *paellak* ziren. Egubakoitz gauean lekua hartzera joan zenik ere bazegoen.

Udanako igoera Euskadiko txapelketarako azken aurreko proba puntuagarria izan da; urriaren 25ean jokatuko da Urrakin azken proba. Zabaletak garaipena eskuan du, baina Nogueirasek gogor egin beharko du lan bigarren postuari eusteko.




A.E.

## Sailkapena

| | | |
|---|---|---|
| 1. | Aitor Zabaleta | 2:09,68 |
| 2. | Ruben Nogueiras | 2:14,81 |
| 3. | Alberto Alonso | 2:14,84 |
| 4. | Aitor Ramirez | 2:24,51 |
| 5. | Iñaki Alberdi | 2:26,14 |
| 6. | Javier Hernandez | 2:27,21 |
| 7. | Josetxo Zapiain | 2:29,23 |
| 8. | Juan Ignazio Zelaia | 2:29,86 |
| 9. | Iñigo Alustiza | 2:30,27 |
| 10. | Xabier Alustiza | 2:34,63 |

DATUA

# 2

**PILOTU**

Igoeran parte hartu zuten 53 pilotuetatik bik bakarrik utzi behar izan zuten proba; hain zuzen, Joseba Larrinagak eta Cristina Liebanak. Autoekin arazoak izan zituzten arren, ez zen istripu larririk jaso Udanan.



Irteera puntua, mendate hasiera. A.E.



### Aitor Arnaiz

"Lehenengo aldia da lasterketa batean parte hartzen dudana. Egia esan, oñatiarra izanda errepidea ezagutzen dut; baina, horrek bere alde onak eta txarrak ditu. Oso gustura nago egindako lanarekin. Gainera, lagunen eta etxekoen animuak izan ditut".



### Ruben Nogueiras

"Udana goitik behera ezagutzen dut, nire etxea dela esan daiteke. Gustura ibili naiz, ez dut arazorik izan eta animu asko jaso ditut. Gaur egun, Zabaleta beste maila baten dago; hortaz, bigarren postua ona da. Urrakin postua defendatzera irtengo naiz".



### Aitor Zabaleta

"Lehia gogorra izan da; hala ere, aldeko izan dut Aitor Erro etorri ez izana. Ez da lehenengo aldia Udanan parte hartzen dudana; azkeneko aldiz lasterketa egin zenean, orain dela zazpi urte, hemen izan ginen. Giro polita sortu da Udanako mendatean".

**FUTBOLA** > HIRUGARREN MAILA

# UDA puntu bakar batekin konformatu behar izan zen atzo

## Aretxabaletarrak aurreratu ziren lehen zatian; berdinketaren gola 60. minutuan iritsi zen

ARETXABALETA
**1-1**
EIBAR B

**Aretxabaleta** > Gaizka, Raul, Amutxastegi, Ruben, Gorka, Gotzon, Akaitz, Igartua (Aitor, 80. min), Vila (Oinatz Agirre, 75. min.), Imanol (Astola, 60. min.) eta Borja.

**Eibar B** > Anibal, Imaz, Eneko, Garalde, Xabier, Gorrotxategi, Iker (Urko, 61. minutuan), Mikel Sanchez (Olaizola, 30. min.), Ugarte (Luis, 73. min.), Elberdin eta Egaña.

**Epaileak** > Etxebarria, Oquillas eta Moredo marrazainen laguntzarekin. Lau txartel hori atera zituen, etxekoen partetik Rubeni eta Imanoli eta eibartarren partetik Enekori eta Xabierri. Hainbat erabaki protesta zioten ikusleek, baina ez zuen emaitza baldintzatu.

**Bestelakoak** > Jende dezente Ibarra futbol zelaian, San Migel jaiak zirela kontuan izanda. Giro atsegina.

**E.M.** > BERGARA

Eguaztenean Realaren kontra 6-0 galtzetik zetorren UDA eta atzokoa ez zen nolanahiko partidua. Aretxabaletarrek jakin badakite *euren liga* Eibar B moduko taldeen aurkakoa dela, Realari eta hirugarren mailako beste oilarrei puntuak kentzea gauza zaila izango dela. Gauzak horrela, bi helburu zituzten UDAko jokalariek atzo: itxura ona ematea eta konfiantza berreskuratzea eta, bestetik, mailari eusteko lehia horretan, puntuak eskuratzen jarraitzea. Ezin da esan etxekoek huts egin zutenik: puntu bakar batekin konformatu behar izan baziren ere, partidu txukuna egin zuten Igor Gordobilen mutilek.

**ARETXABALETA AURRERATU**

Zelaian ondo kokatuta, partiduari hasiera polita eman zioten etxekoek. Hasi eta berehala, Anibal Eibarko atezainak ustez penaltia egin zion Igartuari baina epaileak ez zuen faltarik ikusi jokaldi horretan. Bigarren zatian Eibarrek eskatuko zuen penaltia, ustez Borjak baloia eskuarekin jo ondoren.

UDAren gola 25. minutuan iritsi zen; ezkerraldeko hegaletik Amutxastegiren kontraeraso azkar baten ondoren, haren erdiraketa atzera Vilak jaso zuen eta ez zuen barkatu area barrutik.

**DEFENTSAN SENDO**

Bigarren zatian Eibarko talde filiala izan zen nagusi; lehen minututik berdinketaren bila atera ziren Aitor Iturberen jokalariak, baina UDA serio defenditu zen. Gauzak horrela, estrategia jokaldi baten bitartez lortu behar izan zuten berdinketa bisitariek; Gorrotxategik egin zuen banakoa, falta jaurtiketa bati esker, 60. minutuan. Handik aurrera, gol aukera gutxi izan ziren bi taldeen partetik. Bazirudien bi taldeek ere ontzat ematen zutela puntu bat, eta halaxe bukatu zen partidua. Dagoeneko 8 puntu ditu UDAk eta sailkapenaren erdialdean dago. Ez da hasiera txarra hirugarren mailan hasiberri batendako.

Hurrengo jardunaldian, Arenas Getxori egingo diote bisita aretxabaletarrek. Kategoriako beste oilarretako bat dugu Arenas historikoa. Etxean ez bezala, han punturen bat eskuratzea balentria ona litzateke.



Borja aretxabaletarra eta Eibarko Egaña lurrean, UDAko hiru jokalari inguruan dituztela. JOSETXO ARANTZABAL

**FUTBOLA** > OHOREZKO ERREGIONALA

# Lehen garaipena, faboritoetako baten aurka

## Bergararrek lehen zatian laga zuten partidua erabakita

BERGARA
**2-0**
ZARAUTZ

**Bergara** > Iraola, Urteaga (Agirrezabal, 75. min.)), Elorriaga, Nafarrate, Arazkonaga, Agirre, Otero (Iñurrieta, 47. min.), Loiola (Oregi, 94. min.), Ibañez ( Eloy, 75. min.) Mujika (Alzola, 63. min.) eta Ilzarbe.

**Zarautz** > Jaka, Ferradas, Arruti (Elo, 75. min), Esnaola, Asier, Xato, Alex, Karlos (Abrego, 70. min.), Aitzol (Carrizo, 72. min.)), Vila (Alfonso, 55. min.) eta Luis.

**Epailea** > Zubiaurre, Iker eta Lasarte marraizanekin. Txarto. Txartelzalea. Lehen zatian Agirre eta Xato kanporatu zituen eta luzapenean Arazkonaga. Lau txartel hori gehiago atera zituen.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Gauzak okertzen ari zitzaizkionean, zortea alde izan zuen Bergarak. Etxekoak 1-0 irabazten zihoazen Oterok 25. minutuan egindako golari esker, baina zarauztarrak behin eta berriz erasoan ziren, mahoneroak estutzen. Gainera, Bergarak jokalari gutxiago bat zuen zelaian Agirrek 33. minutuan txartel gorria ikusi eta gero. Eta lehen zatia amaitzear zela, Xatok falta egin zion Martin Ibañez area ertzean eta epaileak penaltia adierazi zuen. Horrez gain, Xato kanpora bidali zuen Zubiaurre epaileak. Zarauztarrek asko protestatu zuten erabakia. Ilzarbek 2-0ekoa egin zuen eta bi taldeek hamarna jokalarirekin ekin zioten bigarren zatiari.

Jarraipenean, Bergarak helburu garbia zeukan: lortutako aldeari eutsi eta denboraldiko lehen garaipena lortu. Manu Diaz entrenatzaileak bost aldaketa egin zituen bigarren zatian zehar eta mahoneroek 4-4-1ekoarekin jokatu zuten. Ilzarbe izan zen puntako jokalari bakarra. Zarautzek erasora egin zuen lehen minututik eta hegaletatik sortu zuten arrisku gehien, Alfonso azkarraren bitartez batez ere. Baina ate aurrean ez ziren batere fin ibili kostaldekoak: hainbat ahaleginen ostean, Carrizok izan zuen aukerarik garbiena, 80. minutuan, baina huts egin zuen area txikian bakar bakarrik zegoela. Jarraian, Abregok eta Alfonsok bat-biko polita egin zuten, baina Abregok ere ez zuen asmatu. Etxekoen aldetik, erdilariek ondo eutsi zieten zarauztarrei eta Ilzarbek izan zuen aukera bat edo beste hirugarren gola egiteko. Edozein modutan, zarauztarrek ia-ia beraien atean sartu zuten baloia: Jaka atezainak hankarekin urrundu zuen baloia 76. minutuan, baloiak Ferradasen bizkarrean jo zuen eta gutxigatik ez zen baloia atean sartu, errebotez.



Ilzarbe bergararra eta Ferradas zarauztarra borrokan zapatuan. J.A.

**DIAZ EPAILEAREKIN HASERRE**

Bergarak arnasa hartzen du iaz 3. mailan zebilen Zarautzi irabazita. Hala ere, Diaz entrenatzailea ez zegoen batere pozik partidu amaieran epailearen lanarekin. Zarauztarrak ere ez. Puntuak etxean eta txartelak denendako.

## emaitzak eta sailkapenak

### 3. MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **Real Sociedad B** | **16** | 6 |
| 2. **Amorebieta** | **13** | 6 |
| 3. **Beasain** | **12** | 6 |
| 4. **Amurrio** | **11** | 6 |
| 5. **Gernika** | **11** | 6 |
| 6. **Arenas Getxo** | **11** | 6 |
| 7. **Baskonia** | **10** | 6 |
| 8. **Elgoibar** | **10** | 6 |
| 9. **Zamudio** | **8** | 6 |
| 10. **Aretxabaleta** | **8** | 6 |
| 11. **Leioa** | **7** | 6 |
| 12. **Zalla** | **7** | 6 |
| 13. **Lagun Onak** | **6** | 6 |
| 14. **Durango** | **6** | 6 |
| 15. **Laudio** | **5** | 6 |
| 16. **Portugalete** | **5** | 6 |
| 17. **Salvatierra** | **5** | 6 |
| 18. **Santurtzi** | **4** | 6 |
| 19. **Retuerto Sport** | **4** | 6 |
| **20. Eibar B** | **3** | 6 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Elgoibar-Zalla | 3-1 |
| Durango-Lagun Onak | 1-1 |
| Portugalete-Laudio | 2-2 |
| Retuerto-Amorebieta | 0-3 |
| Aretxabaleta-Eibar B | 1-1 |
| Amurrio-Santurtzi | 2-0 |
| Salvatierra-Arenas Getxo | 0-0 |
| Zamudio-Gernika | 1-1 |
| Leioa-Real Sociedad B | 0-1 |
| Baskonia-Beasain | 2-1 |

**Hurrengo jardunaldia**

Santurtzi-Salvatierra
Arenas Getxo-Aretxabaleta
Durango-Baskonia
Eibar B -Leioa
Beasain-Zamudio
R. Sociedad B-Retuerto Sport
Gernika-Elgoibar

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | J. |
|---|---|---|
| 1. **Pasaia** | **9** | 3 |
| 2. **Aurrera Ondar.** | **9** | 3 |
| 3. **Hondarribia** | **7** | 3 |
| 4. **Idiazabal** | **3** | 3 |
| 5. **Berio** | **6** | 3 |
| 6. **Tolosa** | **5** | 3 |
| 7. **Ordizia** | **5** | 3 |
| 8. **Euskalduna** | **5** | 3 |
| 9. **Trintxerpe** | **4** | 3 |
| 10. **Bergara** | **4** | 3 |
| 11. **Zarautz** | **3** | 3 |
| 12. **Real Union** | **2** | 3 |
| 13. **Oiartzun** | **2** | 3 |
| 14. **Aloña Mendi** | **1** | 3 |
| 15. **EHU Vasconia** | **1** | 3 |
| 16. **Hernani** | **1** | 3 |
| 17. **Mondragon** | **1** | 3 |
| 18. **Beti Gazte** | **1** | 3 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Beti Gazte-Euskalduna | 1-3 |
| Aurrera Ondarroa-Trintxerpe | 1-0 |
| Berio-EHU Euskalduna | 1-0 |
| Aloña Mendi-Idiazabal | 1-6 |
| Bergara-Zarautz | 2-0 |
| Tolosa-Ordizia | 1-1 |
| Hondarribia-Hernani | 2-1 |
| Pasajes-Oiartzun | 3-0 |
| Real Union-Mondra | 0-0 |

**Hurrengo jardunaldia**

Euskalduna-Aurrera Ondarroa
Trintxerpe-Berio
EHU Euskalduna-Aloña Mendi
Idiazabal-Bergara
Zarautz-Tolosa
Ordizia-Hondarribia
Hernani-Pasajes
Oiartzun-Real Union
Mondra-Beti Gazte

**OHOREZKO ERREGIONALA** > ALOÑA-IDIAZABAL

# Aloñak jipoi galanta jaso zuen Azkoagainen: 1-6

Josu Zubiaren jokalariak noraezean ibili ziren atzoko partiduan; lehen zatian 1-2 zen aurretik Idiazabal eta jarraian beste lau gol egin zituen

ALOÑA MENDI
**1-6**
IDIAZABAL

**E.M.** > BERGARA
Irudi oso eskasa eman zuen Aloñak atzo arratsaldean Azkoagainen. Zubiaren mutilek 1-6 galdu zuten Idiazabalen aurka, azken urteotan etxean jasotako gol zaparradarik handiena. Berehala jarri ziren aurretik Idiazabalgoak: 10. minuturako 0-2 irabazten ari ziren. Atsedenaldiaren aurretik Arrolak aldea murriztea lortu zuen, penalti bitartez.

Baina ilusio faltsu bat besterik ez zen izan. Idiazabalgoak jaun eta jabe ziren zelaian, eta erraz nagusitzen ziren lerro guztietan. Ordu laurden eskasean beste bi gol egin, eta erabat *k.o.* utzi zituzten etxekoak. 1-6... eta eskerrak.



Iñigo Arregi *Arrola* atera jaurtitzen atzo; ez ziren fin ibili oñatiarrak. J.A.

**MONDRA**

# Lehenbiziko puntua, etxetik kanpo

Mondrak husna berdindu zuen zapatuan, Real Unionen aurka

**E.M.** > BERGARA
Mondrak denboraldiko lehenbiziko puntua lortu zuen zapatuan, Irunen. Andoni Azkargorta entrenatzailearen hitzetan, "urrezko puntua baldin eta domekan Beti Gazteri irabazten badiogu. Taldeak lan handia egin du eta goraka egin dezakegu lehen garaipenarekin lotuz gero".

Zapatuan hamar jokalarirekin jokatu behar izan zuen Mondrak, epaileak Kepa Mercader kanporatu ondoren. Txartelei dagokienez, desoreka nabarmena egon zen: hamar hori eta gorri bat ekarri zituzten arrasatearrek. Hori bakarra ikusi zuten irundarrek. Partiduaren amaieran Unai Mutilba Mondrari garaipena emateko zorian izan zen, baina haren jaurtiketa gutxigatik joan zen kanpora.



**BORROKA** > MUNDUKO TXAPELKETA

# Brontzezko dominarekin Undak ametsa egi bihurtu du

Final laurdenetan galdu ondoren bigarren aukera aprobetxatu du Undak 3. postua lortzeko



Maider Unda, Danimarkara joan aurretik egindako entrenamendu saioan. GOIENKARIA.

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Maider Unda aramaioarrak brontzezko domina eskuratu du Herning-en, Danimarkan, jokatu duten borroka libreko Munduko Txapelketan. Final laurdenetan galdu arren bigarren aukera aprobetxatu eta bi borrokaldi irabazita lortu zuen domina Undak.

**BIGARREN AUKERA**

Ez zen batere erraza izan Undarendako eta indar erakustaldiak eman zion hirugarren postua podiumean. Aramaioarrak ondo hasi zuen txapelketa. Lehenengo bueltan Alena Perepelkinari irabazi zion eta bazirudien finalerako hautagaia izango zela. Baina finalerdietan Mongoliako Ochirbat Burmak urrerako aukera kendu zion Oletako borrokalariari. Gero, ordea, mongoliarrak Xiaoqing Qin txinatarraren aurka galdu eta bidea ireki zion Undari bigarren aukerarako.

Bigarren aukera honetako lehenengo borrokaldian Jenny Fransson suediarrarekin neurtu zituen indarrak eta baita irabazi ere –1-1, 0-2–. Gero eta gertuago zuen Undak domina, borrokaldi bakarrera, hain zuzen ere.

**BORROKALDI GOGORRA**

Marina Gasti aurrez aurre zuela borrokaldi gogorra jokatu zuen Oletakoak. Sudurra odoletan zuela lehen zatia 0 eta 1 galdu ostean buelta eman zion bigarrenean. – 1-0–. Hala, hirugarren zatiak erabaki zuen lehia. Hirugarrenean, 4 eta 0koarekin lortu zuen brontzezko domina Undak.

**AMETSA EGI BIHURTUA**

Maider Unda pozik zegoen Munduko txapelketan lortutako bosgarren postuarekin. "Asko borrokatu behar izan dut, baina azkenean lortu dut ametsa egi bihurtzea", esan zuen Undak lehiaren ondoren.

Undak 72 kiloko kategorian parte hartu du. Guztira 25 herrialdetako 27 borrokalarik parte hartu dute kategoria berean. Irailaren 21etik 27ra bitartean jokatu da txapelketa Danimarkan.

**UNDAREN GARAIPENAK**

Aramaioko borrokalariak ez du ez palmares makala. Espainiako txapelketa hamaika aldiz irabazi du Undak. Bat Basque Team taldeko atleta bosgarrena izan zen iaz jokatutako Pekingo Olinpiar Jokoetan; eta, duela bi urte Bakun (Azerbaijan) jokatutako Munduko txapelketan ere emaitza bera eskuratu zuen, bosgarren postua. Gainera, udan, zazpigarren postuan bukatu zuen Maiderrek Polonian jokatutako VI. Warsaw Cup txapelketa.

Munduko txapelketara orain arte nazioartean egindako lana hobetzera joan da Unda; eta, emaitza ezin hobearekin itzuli da Oletara Danimarkatik.

**ZAZPIKO FUTBOLA**

# Gibel Boys nagusi, I. San Migel txapelketan

Zapatuan jokatu zuten txapelketa Txarrixak taldearen aurka Azkoagainen

A.E. > OÑATI

Gibel Boys taldeak eroan du aurten lehenengoz jokatu den San Migel zazpiko futbol txapelketa. Zapatuan izan zen finala Txarrixaken aurka.

**PENALTIETAN**

Partidua berdindua eta gol askokoa izan zen. Legezko denbora amaitutakoan 3-3 erakusten zuen Azkoagaineko markagailuak. Hortaz, penaltietan erabaki zen txapelduna. Gibel Boysko mutilek ligako txapelduna den Txarrixak mendean hartu zuten, garaikurra irabaziz.

Anton Sierra arduradunak azaldu du beteranoen txapelketan dauden 18 taldeetatik 14 taldek esku hartu dutela txapelketan. Beteranoak urria erdialdean hasiko dira.




JOSETXO ARANTZABAL

## Rezusta bergararra eta Mendizabal antzuolarra, San Migel finalera

Bi debagoiendar izango dira datorren zapatuan Oñatiko frontoian jokatuko diren 26. San Migel txapelketako finaletan. Gazte mailan Juaristik –Azkoitia– eta Rezustak Azpeitiko Landa eta Aizpururen aurka jokatuko dute; nagusitan, ostera, Abadiño eta Galdakaoko Uriarte eta Kantxok Mendizabal eta Linzoainen –Eugi– aurka jokatuko dute. Finalak 22:30ean hasiko dira. Zapatuko finalerdietan 22-21 irabazi zuten Juaristi eta Rezustak; eta, 22-17 irabazi zuten Mendizabal eta Linzoainek.

**MENDIA** > NATURGAS HORNBEIN ESPEDIZIOA

# Everesteko gailurrera iritsi barik geratu dira

Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltza oinarrizko kanpalekura jaitsi dira bi elur-jausi jasan eta gau txarra pasa ondoren

A.E. > BERGARA

Naturgas Hornbein espediziko kideek oraingoz ezin izan dute Everesteko gailurra zapaldu. Euren asmoa atzo goizean gailurrera iristea zen; baina, egubakoitzean izandako eguraldiaren ondorioz ezin izan dute helburua bete.

Mendizaleak eguaztenean hasi ziren lanean. Egubakoitzean 7.200 metrora iritsi ziren, eta euren asmoa zapatuan 8.000 metrora iritsi eta domeka goizean gailurra zapaltzea zen.

**EGURALDIAK OKERRERA**

Eguraldi ona iragarri zuten domekara arte; baina, bat-batean txarrera egin zuen eguraldiak mendian eta egubakoitzean elurra hasi zuen. Gauean elurrak jarraitu egin zuen; hala, bi elur-jausi izan zituzten, eta horietako batek mendizaleak zeuden denda harrapatu zuen.

**GAUA, HARKAITZ BATEN AZPIAN**

Dendatik atera eta harkaitz baten azpian pasa zuten gaua Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltzak. Egun argiarekin batera mendizaleek oinarrizko kanpalekurako bidea hartu zuten. Zazpi ordu behar izan zuten beherantz, oso egoera arriskutsuan.

Orain, atseden hartu eta indarrak berreskuratzea da garrantzitsuena. Hurrengo egunetan zer egingo duten erabaki barik dute oraindik.

**EVERESTEKO IPAR-AURPEGIA**

Iñurrategi eta bere taldeak Everest ipar aurpegitik igo gura dute; hain zuzen, Hornbein korridoretik. Zazpi mendizalek lortu dute hori egitea, baina era alpinoan Loretan eta Troillet suitzarrek bakarrik.

Gari Baños > Contentpolis-Ampo taldeko masajista

# "Errepidean 'drogata' bezalako irainak entzutea gogorra da"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Gari Baños oñatiarrak bizi osoa darama txirrindularitzari lotuta. Umetan hasi zen Aloña Mendin, eta orain, 31 urterekin, Contentpolis-Ampo talde profesionalean lan egiteko aukera izan du. Espainiako itzulian izan da; baina ez da izan han ibili den oñatiar bakarra.**



Oraindik zehaztu barik duen arren, baliteke Mexikoko lasterketa batera joatea datorren astean. A.E.

**Umetako lagun baten bidez izan duzu Espainiako itzulian parte hartzeko aukera. Ez da horrela?**

Murtzian bizi den Iñaki Urroz oñatiarraren eskutik izan dut aukera hau. Txikitan txirrindularitzan batera ibilitakoak gara; gero, Urroz Murtziara joan zen bizi izatera. Orduan, distantzia tarteko, harremana pixka bat galdu genuen, baina gazte mailan selekzioarekin hasi zen korritzen eta hona etortzen zen. Harremana jarraitu izan dugu beti; gainera, orain Internet eta sakelakoak direla tarteko, samurragoa da harremana mantentzea.

Zuzendari bezala dabil orain, eta Euskal Herrira etortzen den bakoitzean deitu egiten dit. Hala, ahal dudan neurrian laguntzen diot: gauzak prestatu, masajeak eman… Orain lan barik nagoenez, nirekin gogoratu da eta bere taldean masajista izateko aukera eman dit. Cataluniako Voltan hasi nintzen, ekainean. Ordutik ez nazi geratu; handik Portugalera, Austriara, Euskal Herriko lau klasikak egin ditugu, Italiara, Madrilera, Burgosera… eta Espainiako itzulira.

**Zein da zure lana talde barruan?**

Ni ofizialki masajista bezala joan naiz, baina lan horrek beste hainbat lan ekartzen ditu. Anoak guk prestatu behar izaten ditugu: labadorak jarri, gosaria eraman, txirrindulariak iratzarri, maletak jaitsi… hainbat lan daude. Metara txirrindulariak baino lehenago iritsi behar izaten dugu dena prest izateko. Azken finean gure lana txirrindularien gainean egotea da, falta dutena emateko.

**Txirrindularitzan betidanik ibilitakoa zara. Zela hasi zinen?**

Alebinetan hasi nintzen, bederatzi urterekin, eta ordutik ez dut harremana galdu. Orain arte herri mailan egin dudan lana eta gero, horrelako aukera ezin izan dut alperrik galdu. Ea jarraitzeko aukerarik dudan!

**Orain arte gaztetxoekin egin izan duzu lan, eta orain profesionalekin. Alde handia dago?**

Bai, handia. Contentpolis-Ampo kontinental profesional mailan dago, UCI-ProTour baino maila bat beherago. Espainiako itzulira joateko, adibidez, gonbidapena izan dugu.

Egia esan, ez dauka zer ikusirik gazteekin lan egin edo profesionalekin. Beste kirol bat probatzea bezala izan da.

Gainera, asko ikasi dut. Masaje ikastaroa egin nuenetik beti ibili naiz etxean masajeak ematen, baina gehiago egitea gura izan dut. Lan honek aukera eman dit egunero masajeak emateko. Hasieran beldur pixka bat nuen; izan ere, txirrindularitza ezagutzen nuen, baina ez mundu hau. Hortaz, ez nekien ondo egingo nuen edo ez; eta, adibidez, Kataluniako Voltan ez nuen nire lanaz gozatu, oso urduri egon nintzen.

**Espainiako itzulia telebistan ikusi izan duzu orain arte. Zelakoa da barrutik ikusita?**

Han zaudenean hasieratik bukaerara arte pasatzen dena ikusten duzu; telebistan, ostera, azkeneko 40 kilometroak besterik ez dituzu ikusten. Adibidez, txirrindulariak zelan dauden, zer sentitzen duten… hori ez da ikusten kanpotik. Esan daiteke telebistan ikusi egiten duzula eta han zaudela, ostera, bizi egiten duzu.

**Nola bizi dute txirrindulariek gaur egun kirol honek duen presioa?**

Beste kirol batzuekin alderatuta oso zikinduta dagoen kirola da ziklismoa. Nik beti esaten dut hedabide batzuek ziklismoaz bakarrik berba egiten dutela positibo kasuak daudenean.

Mutilek ahal duten ondoen daramate, badakite zer dagoeneta. Gertatzen dena da gogorra dela, eta ez dela polita errepidean *drogata* eta bestelako irainak entzutea. Hori ez da ona ziklismoarentzat, ezta kirolarentzat ere.

**Nola baloratu duzue Espainiako itzulian egindako lana –sailkapen orokorrean 14.a–?**

Sailkapen orokorrean egindako lana alde batera utzita, gu oso pozik gaude egindako lanarekin. Pena da ezin izan dugula garaipen bat lortu; izan ere, etapa askotan aurrean egon gara, garaipena lortzeko gertu.

**Markel Irizar oñatiarra ere itzulian izan da. Nola ikusi duzu hark egindako lana?**

Oso ondo ikusi dut. Markelekin egon naiz, baina ez dugu egunero berba egiteko aukerarik izan. Lehen esan dizudan bezala, batzuetan azkeneko 40 kilometroetan egindako lana bakarrik ikusten dugu; baina, aurretik, lan zikin asko egin beharra dago. Markelek, adibidez, askotan egiten du lan hori.

Dagoeneko zoriondu dut egin behar duen talde aldaketagatik. Uste dut esperientzia bezala oso ondo etorriko zaiola.

**Aurrera begira non ikusten duzu zure burua?**

Ez dakit. Oraintxe etorri naiz Espainiako Itzulitik eta ez dakit. Beti esaten dut egunerokoa bizi eta egiten dudanaz gozatzea dela nire nahia. Nik gustura jarraituko nuke honetan!

AUKERA

**"Txikitan lagun izandako batek eman dit aukera Espainiako itzulian egoteko"**

BARRUTIK BIZI

**"Telebistan itzulia ikusi egiten da; barrutik, ostera, bizi egiten da gertatzen den dena"**

MARKEL IRIZAR

**"Dagoeneko zoriondu dut Markel egin duen talde aldaketagatik; ondo etorriko zaio"**

## Hiru oñatiar izan ditugu 2009ko Espainiako itzulian

Argazkiko hirurak oñatiarrak dira eta hirurak izan dira 2009ko Espainiako itzulian. Lehenengoa, Iñaki Urroz, oñatiarra izatez, aspaldiko urteetan Murtzian bizi da; bera, Contentpolis-Ampo taldeko zuzendari lanetan dabil; bigarrena, Markel Irizar Euskaltel-Euskadiko txirrindularia; eta, hirugarrena Gari Baños masajista lanetan ibili da aurtengo itzulian.




Iñaki Urroz, Markel Irizar eta Gari Baños. GARI BAÑOS



Sintoma batzuk 6-7 urte bete aurretik antzeman behar dira ezinbestean. WILMA FOREST

**PEDIATRIA** > JABIER AGIRREREN KOLABORAZIOA

# Hiperaktibitatea edota arreta-falta dutenean

Eskola-adinean dauden umeen % 3-7 bitartean dira 'Hiperaktibitatea' izen orokorrarekin ezagutzen den trastornoa jasaten dutenak

**OIHANA ELORTZA** > ARRASATE

Jabier Agirre pediatrak eman du datua: eskola-adinean dauden umeen % 3-7 bitartean dira 'Hiperaktibitatea' izen orokorrarekin ezagutzen den transtornoa jasaten dutenak. Agirreren esanetan, "arazo psikologiko horrek eragin negatiboa dauka, noski, umearen eskolako errendimenduan, eta baita bere familiako nahiz gizarte-mailako harremanetan ere. Horregatik, arazoa garaiz detektatzeak eta tratamendu egokia ezartzeak nabarmen hobe ditzake sintomak".

**NOLA ANTZEMAN AFTH DELAKOA**

Jendeak orokorrean hiperaktibitatea esaten dio AFHT delakoari: Arreta Faltagatiko Trastornoa Hiperaktibitatearekin.

Arreta Faltaren eta Hiperaktibitatearen sindromea duten umeek arazo handiak dituzte arretari eusteko. Gainera, ume horietako asko, ez guztiak ordea, hiperaktiboak izango dira (gehiegizko mugimenduak) eta zailtasunak izango dituzte euren bulkadak kontrolatzeko. Hiperaktibitatea ez da erraz antzematen. Beharrezkoa da gurasoen, irakasle eta psikiatren elkarlana, diagnostiko egokia egin eta tratamendua ezartzeko.

**HIRU MOTA**

Nagusiki hiru mota bereizten dira: arreta-falta gailentzen den sindromea, hiperaktibitatea eta inpultsibitatea gailentzen direna eta sindrome konbinatua (hau da denetan arruntena).

Umeak arreta-falta duela esateko: sintomak etxean zein ikastetxean agertu behar dira, sindromearen sintoma batzuk 6-7 urte bete aurretik azaldu behar dira ezinbestean eta sintomek eragin nabarmena izan behar dute umearen eguneroko bizimoduan, bai eskolan, baita etxean edo bere harreman sozialetan ere (lagunartean batez ere). Diagnostiko egokia egin eta tratamendua jartzea prozesu luzea da, profesionalen elkarlana eskatzen duena.

**ZER EGIN GURASOEK**

> Ez saiatu bi gauza (edo gehiago) batera lortzen. Hobe da bananbanan joatea.

> Ume bakoitzaren ahalmenak kontuan izan, noraino irits daitekeen oso argi edukiz.

> Ez utzi tratamendua bertan behera, umea sasoi txarra pasatzen egon arren.

> Umeari hitz egiterakoan, begietara begiratuz eta hurbiletik egin beharko genuke. Eta ondo entzun eta hobeto ulertu digula ziurtatuz betiere.

> Hobe sarietara jotzea, zigorrak erabiltzea baino. Zerbait ondo egin duenean hori onartu eta *saritzea* baino gauza hoberik ez dago.

> Saiatu umea giro antolatu batean bizi dadin: ordena, ordutegiari jarraituz, errutina batzuei eutsi eta abar.

> Erakutsi umeari bere sentimenduak eta jarduerak interesatzen zaizkigula. Gure onarpena eta laguntza behar-beharrezkoak ditu.

**Maitena Arana** > Zahar Berriko teknikaria

# "Gurasoak umeekin euskaraz komunitzeko egitasmoa da Gurasolagun"

**O.E.** > ARRASATE

**Gurasolagun proiektua antolatu dute bigarrenez Arrasaten, gurasoek umeekin euskaraz hitz egin, jolas eta bizitzeko egitasmoa.**

**Hortaz, gurasolagun proiektuak, jarraipena izango du?**

Bai. Aurten, gainera, dirulaguntza jaso dugu.

**Zein da Gurasolagun egitasmoaren helburua?**

Helburu nagusia da gurasoen eta seme-alaben arteko komunikazioa euskaraz izatea. Gurasoek euskaraz jolas egitea, hitz egitea umeekin.

**Zer pentsatu duzue hori lortzeko?**

Gurasoen taldeak sortzea. Hiruko taldeak, adibidez horietako bi euskaldun zaharrak eta bat euskaldun berria direla.

**Zer egingo dute sortutako guraso talde horiek?**

Euren arteko eta umeekin dituzten solasaldiak euskaraz egin behar dituzte. Horixe da asmoa. Talde horiei jarraipena egingo diegu guk: zein zalantza dituzten, nola moldatzen diren, zailtasunik duten edo ez, gustura dauden edo ez, egitasmo honek euren euskara maila hobetzen laguntzen dien edo ez ... eta antzeko iritziak jasoko ditugu.

**Noiz eta non elkartuko dira talde horiek?**

Euren esku dago hori, gurasoek eurek gura duten tokian eta orduan. Izan daiteke umeek normalean jolasten duten parkean, gurasoek eurak joateko ohitura duten tabernan, ikastetxeko atarian ... Edozein toki da aproposa.

Ordua ere beraiek jarriko dute: umeen merienda ordua, kirola egiten ari diren unea ...

**Hortaz, koadrilakoak diren gurasoak, adibidez, osatu dezakete Gurasolagun proiektuko talde bat?**

Bai. Izan daitezke koadrilakoak, eskolako lagunak edo posible da izena bakarrik ematea ere. Gero geuk sartuko ditugu ondoen datorkien taldean.

**Zenbatero eta zenbat orduz elkartuko dira taldekideak?**

Gure proposamena da ordu betez egotea astean behin edo birritan. Dena dela, hitzordu horrez gain, bestelako ekintzak ere egingo ditugu urtean zehar: tailerrak ume zein gurasoendako eta irteerak, adibidez.

**Motibatuta ikusten dituzu gurasoak umeekin euskaraz hitz egiteko?**

Askok denbora falta jartzen dute aitzaki horrelako konpromiso bat ez hartzeko, baina oso garrantzitsua da haurrak bere lehen bost urtetan ama hizkuntzarekin duen harremana.

**Zein gurasori dago zuzendu-ta Gurasolagun?**

Guraso potentzialdunei heltzeko modu bat da, euskara maila errazarekin gurasoen artean euskara praktikatzeko programa ere bada-eta.

Interesa duenak, izena eman behar du: 943 77 12 28.



Maitena Arana. O.E.

> UMEAREN NEGARRA

## Umeari ez zaio eten behar negarra, negar egiten lagundu baizik, Alfredo Hoyuelosen esanetan

Berriozarko Musika Eskolan emandako hitzaldian esan du Alfredo Hoyuelos adituak umearen negarrari lagundu egin behar zaiola. «Negarra ez da arazoa», Hoyuelosen hitzetan, «bakarrik negar egitea baizik». Horregatik, beti ondoan egon behar da, gainean, haurraren sentimendua laguntzen. Hainbat urrats daude horretarako: «Negarra ez moztea. Negar egiteari uzteko umearen arreta ez desbideratzea, eta zaintzailea gainean eta adi egotea" edo "pazientzia izatea", adibidez.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



> ARGAZKI LEHIAKETA
Argazki lehiaketako irudiak argitaratzen jarraitzen dugu > 30-32



> 'ILUNPEAN'
Bergarako Nora Urkia diseinatzaileari elkarrizketa > 37



> ITXARO ZUBILLAGA
Aretxabaletako kazetariarekin izan gara asteburuan > 40

# 50. edizioan ere 'Bizkor' onena, sasoi onean dagoela erakutsiz

**11 PARTE HARTZAILE**
Hamaika txakur lehiatu ziren atzo Santa Lutziako zelaian



Joxe Mari Jauregi, Jean Paul Iriken eta Marcel Uhalde eta txakur irabazleak podiumean, gainontzeko parte hartzaileekin. JOSETXO ARANTZABAL

**MIREN ARREGI** > OÑATI

"Ez nuen uste irabaziko nuenik; bat irabaztea zaila da eta sei irabaztea zailagoa, baina, azkenean ondo moldatu gara, lan ona egin dugu" zioen Joxe Mari Jauregi illarduiarrak Oñatiko Nazioarteko Artzain Txakurren 50. Txapelketa irabazi eta berehala. Dagoeneko haren txakur *Bizkor* ezaguna eta miretsia da herrian; ez da gutxiagorako, seigarren txapela eskuratu ostean. "Lan ederra egin du *Bizkorrek*, oraindik ere ondo dagoela erakutsi du" adierazi zuen antolatzaile Jose Mari Bengoak. Izan ere, 10 urte bete ditu Jose Mari Jaueregiren txakurrak: "oso ona izan da beti, oso obedientea eta oso azkarra" gaineratu zuen pozik Jauregik.

**BERRITASUNEKIN POZIK**

**Hozkailu industriala.** 2,05 altuera, 1,40 zabalera eta 0,70eko sakonera. Hiru ateduna. Interesatuek deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 649-84 67 09

**Konpresore handia.** Konpresore handia salgai. Arbakom markakoa. Erabili gabe. 200 euro. Telefonoa: 606-94 96 58.

**Korrika egiteko zinta.** BH Argon markakoa. Gehienezko abiadura 18 km/orduko. Gehienezko pendetza %15. 550 euro. Deitu 635-69 82 63 telefonora.

**Liburu oso zaharrak saltzen ditut.** 696-84 19 51 edo 943-53 29 18

**Mendiko bizikleta.** Mondraker Factor R salgai, suspentsio bikoitz eta blokeoarekin. Prezioa 1.400 euro. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 655-74 48 55 edo 943-78 24 90

**Nokia 6124 .** Nokia 6124 telefonoa salgai. Vodafone etxekoa. 50 euro. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 617-13 17 51

**Oilagorretarako txartel bi salgai Burgosen.** 3.900 hektarea, haritz eta pinuz, Pinilla de los Barruecos eta Gete herrietan (Salas de los Infantestik 8 kilometrora). Gehienez 11 eskopeta. Txartel bakoitzak 1.200 euro. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 696-92 18 29 edo 665-70 10 31

**Piragua bi salgai.** Piragua bi salgai, osagarriekin, bata mistoa eta bestea erreka edo olatuetarako aproposa. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 679-10 95 23

**Txakurrak eramateko kaja.** Txakurrak kotxean eramateko kaja salgai. Estreinatu barik. Bi txakurrendako modukoa. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki hauetara: 639-37 22 99 edo 659-77 03 33

**Umeedako karroa salgai.** Jane markakoa. Hiru gurpileko, eta frenoa. Ia berria. Prezioa interesgarria. 100 euro. Negoziagarria. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 608-36 26 07

**Umeendako karroa.** Silver Cross etxekoa. Oso egoera onean. 250 euro. Ez da aulki bihurtzen. Arrasate. Tamara. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 679-23 27 93

**Urbanizatutako lursaila Etxarrin.** Urbanizatutako lursaila salgai Etxarri Aranatzen. Interesatuek deitu ezazue 676-22 38 02 telefono zenbaki honetara.

### 802. EROSI

**Bergara.** Artzain txabola erosi eta lokal bategatik trukatuko nuke. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 645 00 80 55.

**Borda.** Borda edo antzekoa erosiko nuke. Interesatuek idatzi ezazue *tuyo585@hotmail.com* helbidera edo deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 669-17 09 51

**Lursaila Bergaran.** Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara edo idatzi ezazue helbide honetara: *tuyo585@hotmail.com* 669-17 09 51

**Lursaila erosiko nuke Goierri inguruan.** Eraikigarria edo ez eraikigarria izan daiteke. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 634-46 41 69

**Lursaila Aretxabaleta inguruan.** Aretxabaleta inguruan ortua egiteko lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 696-32 63 13

**Oñatin lur saila** erosi edo alokatuko nuke. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 609 11 72 96.

### 803. EMAN

**Aulki-kapazoa.** Umeendako aulki-kapazoa ematen da opari. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 605-73 37 39

**Marrazteko mahaia.** Marrazteko mahai bat ematen dut. Oihana. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 616-84 55 96

### 804. HARTU

**Artzain txabola.** Artzain txabola erosi eta lokal bategatik trukatuko nuke. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 645-00 80 55

**Altzariak.** Etxea osatzeko altzari eta etxetresnak hartuko nituzke, ezin ditudalako erosi. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 615-79 51 89

**Manikiak.** Bigarren eskuko manikiak erosiko nituzke, haur eta nagusienak. Deitu telefono zenbaki honetara: 665-73 75 23

**Tintin-en komikiak euskaraz.** erosiko nituzke. Prezioa adosteko. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 94-460 74 44.Getxo.

### 806. GALDU

**Belarritakoa.** Altsasun galdu da, zilarrezkoa da eta luzea. Opatu duenak hots egin dezala 616-65 44 90 telefono zenbaki honetara.

**Giltzak Etxarri Aranatzen.** Etxarri Aranatzen giltza batzuk galdu dira. Tere izena jartzen du. Interesatuek deitu ezazu telefono zenbaki honetara: 699-21 61 19

**Jertse gris bat galdu da.** Laskorain kalean galdu zen . Sarituko da. Interesatuek deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 605-74 46 23

**Sakelako telefonoa.** Sakelako telefonoa galdu dut. PESAko autobusean Bilbo-Bergara ibilbidean. Interesatuek deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 639-50 51 85

**Sakeleko telefonoa.** Sakeleko telefono bat galdu dut Labegaraietako inguruan, irailaren 19an. Udaltzaingoan utzi edo telefonoz deitu, mesedez. Interesatuek deitu ezazue telefono zenbaki honetara: 943-76 29 09

**Txirrindularako bi kasko Altsasun.** Txirrindularako bi kasko galdu dira Altsasun. Bata laranja, txuria eta inguruan galdu zen. Eta bestea kasko gorri-beltza da. Opatu dituenak hots egin dezala 948-46 84 62 telefonora zenbaki honetara.

## 9/ HARREMANAK

### 902. HARREMANAK

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entseguetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Interesatua egon ezkero idatzi helbide elektroniko honetara: *aldezaharrekojoaldunak@gmail.com*

**Neska bila.** Kaixo! Donostiako 32 urteko mutil ezkondua naiz eta egoera berdinean dagoen emakume bila nabil konplizitaterako. *mgpelmaz@gmail.com* helbidera

### 904. BESTELAKOAK

**Bergara-Donostia.** Bergara-Donostia. Egunero Bergaratik Donostiara (Errotaburura) joaten naiz. Norbaitek gastuak banatu nahi baditu. Telefonoa:679-86 51 36.

**Oñati-Gasteiz.** Egunero Oñatitik Gasteizera joaten naiz. Lakuan lan egiten dut. Norbaiti autoa konpartitzea interesatuz gero,telefonoa: 635-20 33 14

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | | | 4 | | | |
| 6 | 2 | 4 | | | | 5 | 9 | |
| | 8 | 7 | | 2 | | 3 | 4 | 1 |
| 9 | | | | | 3 | 2 | 1 | |
| | | | 2 | | 5 | | | 6 |
| 2 | 5 | 3 | 1 | 7 | | | | |
| 8 | | 9 | | | | | 2 | |
| | | | | | | | | |
| 4 | | 5 | | 6 | | | | 3 |

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



Lehia
Karibeko irla
Hegaztien etxea
Barren
Abenduak
Erregai mota
Marokoko hiriburua
Ilundurik
Europako estatua
*Aretxabaletako dorretxea
Ipar EH-n, arroza
Ardiaren ar
Kontsonantea
Sodio karbonatoa
Segizio
Familia eskoziarra
Musika nota
(Infin.) Gurtu
Futbol tanto
Garo, bokalik gabe
Ipar EH-n, inguru
Optimistak
Gerra
Oxigenoa

GOIENKARIA

## hieroglifoa

Gipuzkoako herria.



## hizki salda

Antzuolako bost kaleetako izenak.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | I | H | E | R | R | A | D | O |
| N | G | B | R | U | M | S | K | N |
| T | S | A | G | A | S | T | I | D |
| I | D | Q | E | K | L | G | E | A |
| G | N | O | L | T | E | A | D | R |
| U | D | N | L | I | O | S | N | R |
| A | K | P | R | E | T | T | F | A |
| S | A | N | J | O | S | E | P | E |
| L | E | O | A | L | S | F | J | G |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | B | ■ | H | ■ | L |
| | | | T | O | B | A | G | O |
| | | | ■ | R | A | B | A | T |
| ■ | I | ■ | I | R | R | I | S | A |
| O | T | A | L | O | R | A | ■ | Z |
| ■ | A | H | U | K | U | ■ | S | I |
| K | L | A | N | A | ■ | G | O | L |
| ■ | I | R | I | ■ | G | U | D | A |
| B | A | I | K | O | R | R | A | K |

**Hieroglifoa:** Pasaia.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 3 | 9 | 1 | 7 | 5 | 4 | 8 | 6 | 2 |
| 6 | 2 | 4 | 3 | 1 | 8 | 5 | 9 | 7 |
| 5 | 8 | 7 | 6 | 2 | 9 | 3 | 4 | 1 |
| 9 | 7 | 6 | 4 | 8 | 3 | 2 | 1 | 5 |
| 1 | 4 | 8 | 2 | 9 | 5 | 7 | 3 | 6 |
| 2 | 5 | 3 | 1 | 7 | 6 | 4 | 8 | 9 |
| 8 | 6 | 9 | 5 | 3 | 7 | 1 | 2 | 4 |
| 7 | 3 | 2 | 9 | 4 | 1 | 6 | 5 | 8 |
| 4 | 1 | 5 | 8 | 6 | 2 | 9 | 7 | 3 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | I | H | E | R | R | A | D | O |
| N | G | B | R | U | M | S | K | N |
| T | S | A | G | A | S | T | I | D |
| I | D | Q | E | K | L | G | E | A |
| G | N | O | L | T | E | A | D | R |
| U | D | N | L | I | O | S | N | R |
| A | K | P | R | E | T | T | F | A |
| S | A | N | J | O | S | E | P | E |
| L | E | O | A | L | S | F | J | G |

## asteko horoskopoa

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Gauzak bakarrik eta zeure kontura egiteko gogoak arazoak ekarriko dizkizu lanean zein bikote kidearekin. Elkarlanean aritzen eta besteak aintzat hartzen ikasi behar duzu.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Luzerako lan kontratu ona izateko aukera. Bikote kidearekin gustura. Hainbat arrazoi direla eta leku batetik bestera ibiliko zara, baina etxetik hurbil.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Gorde zure ezinegona, gogor egin beharko baituzu lan, eta emaitzak ez dira berehalakoak izango. Bidaiarako asmoa bazenuen, laga alde batera, ez da eta unerik egokiena.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Heldu gogor beharrari, azkenaldian gauza garrantzitsuak alde batera laga baitituzu, eta orain ondorioak ordaintzen ari zara. Erabili daukazun asti apurra, lasaitzeko.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Ardurak besteen esku uzteko joera nagusi; lagunak zurekin haserretu daitezke horregatik. Kontuz alkoholarekin, liskarren bat izan dezakezu-eta. Tentuz ibili.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Hainbat egitasmok emaitza onak izango dituzte, batez ere andrazkoek bultzatutakoek. Harremanetarako bolada ona, horri esker beharrean hobekuntzak izan ditzakezu-eta.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Ohi baino sentikor ibiliko zarenez, bakartasunaren bila joko duzu. Ez atzera ez aurrera hainbat egitasmorekin. Hausnartu horien inguruan. Ez da ezer berritan hasteko unea.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Larregizko lanak jota utziko zaitu. Diru gutxiago izango duzun arren, ahalegindu behar gutxiago egiten; bizimodu hobea izango duzu.

**SAGITARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Lelokeriengatik bikote kidearekin izango dituzun liskarrek beragandik aldenduko zaitutze. Hausnartu ea harreman horrek erabat asetzen zaituen.

**CAPRICORNIUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Oso borrokazale ibiliko zara, eta horrek ez dizu ezer onik ekarriko. Zaindu zure oldarkortasuna, bestela jendea aldenduko zaizu. Egin kirola adrenalina askatzeko.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Aldaketarako duzun gogo handiak etxean aldaketak egitera bultzatuko zaitu, eta horrek zurekin bizi direnak amorraraziko ditu. Ezer egin aurretik ondo pentsatu.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Besteek kale egin dizutela pentsatuko duzu, lagunduko zintuztela esan zuten arren ez baitute ezer egin. Ondorioz, gauzak zeure kontura egingo dituzu.

## gazte zerbitzua

### BEKAK

**> Ikerketa.** Eibarko Udala. IX. Juan San Martin Beka 2009. Bekak euskarazko ikerketa sustatzea du helburu. Epea: urriaren 13a.

### LANA

**> Begiralea.** Antzuolako Udala. Antzuolako Gazte Txokorako begiralea behar da. Epea: irailaren 30a.

**> Igeltseroa.** Beasaingo Udala. Beasaingo Udalean bigarren mailako ofizial igeltsero-lanpostu bat jabetzan betetzeko oposizio-lehiaketa librea. Epea: urriaren 5a.

**> Administratzailea.** Mintzola Fundazioa. Villabonako Mintzola Fundazioak administratzaile lanpostua betetzeko pertsona bat behar du. Epea: urriaren 2a.

### IKASTAROAK

**> Sorosle.** DYA Gipuzkoa. Bergarako Sorosle eta Sorospen Ikastaroa. Ikastaroaren iraupena hiru astekoa da, urriaren 26tik zazpietatik bederatzietara, astelehenetik ostiralera. Epea: plazak bete arte.

**> Iparorratza.** Gipuzkoako Goi Mendi Eskola. Iparorratzaren bitartez orientazio ikastaroa (hastapena). Urriaren 3an eta 4an Hondarribia eta Aiako Harrietan izango da. Federatuta egotea nahitaezkoa da. Epea: plazak bete artean.

**> GPSa.** Gipuzkoako Goi Mendi Eskola. GPSaren bidezko orientazio ikastaroa (trebakuntza). Urriaren 17an eta 18an Andoainen, Adarran izango da. Federatuta egotea nahitaezkoa da. Epea: plazak bete arte.

### LEHIAKETAK

**> Argakilaritza.** Azkoitia eta Azpeitiako Udalak. VIII. Argazki lehiaketa: 'Gure inguruari begirada bat'. Epea: urriaren 24a.

**ARRASATEKO GAZTE BULEGOA:**
Biteri etorbidea 3 • 943 77 00 65
gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net

**BERGARAKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Kultura etxea • 943 77 91 57
gzerbitzua@euskalnet.net

**OÑATIKO GAZTEENDAKO INFORMAZIO GUNEA:**
Foruen plaza 4 • 943 71 82 57
gazteinformazioa@oinati.net

## astea GOITBn

### Astelehena, 28



**> Udanako auto igoeraren laburpena**
**22:15**

Zapatuan Oñatin egindako Udanako auto igoeraren laburpen zabala emango dute *Harmailatik* kirol programan.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo.
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wazemank
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Elkartasun bideak.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Martitzena, 29



**> Nora Urkia diseinatzailea 'Ilunpean' saioan**
**22:15**

Madrileko Cibeles pasarelan izandako esperientzia kontatuko du, besteak beste, Nora Urkia diseinatzaile bergarararrak.

**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Itsasoari begira.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Solaskide.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Lamien artean.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

### Eguaztena, 30



**> Imanol Urbieta 'Gipuzkoa Kultura' saioan**
**22:15**

Imanol Urbieta musikari ezagunaren bi liburu izango da Gipuzakoa Kulturan jorratuko dituzten hiru gaietako bat.

**113:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Ikusmira.
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoa Kultura.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

### Eguena, 1



**> Josu Zabalari elkarrizketatuko dute 'Magazinean'**
**19:45**

Ikasturte hasieraz eta erronkez galdetuko diote, besteak beste, Mondragon Unibertsitateko errektorea den Josu Zabalari.

**313:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Gipuzkua kultura.
**15:45** Elkartasunaren bidean.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Elkartasun bideak.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:15** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

### Egubakoitza, 2



**> Maritxu Kajoi festa herrikoia 'Magazinean'**
**19:45**

Arrasaten ospatuko duten Maritxu Kajoi festa ezaguna gertutik jarraituko dute egubakoitzeko *Goiena Magazinea*.

**13:15** Marrazki bizidunak .
**13:45** Kantari.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15**Elkartasunaren bidean..
**15:45** Ur eta lur.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Kantari.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Gipuzkoa Kultura..
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

## arrasate irratia

FM 107.7

**> Arrasate Irratia**
**10:30**

Sukaldaritzari buruzko liburua zozketatuko dute entzuleen artean Arrasate Irratian, Patxi Trula sukaldariak idatzitako liburua da *Cómo ahorrar cocinando*, hain zuzen ere. Diru gutxirekin nola ondo jan azaldu gura du liburua. Eta hori lortzeko errezetak, trukoak eta aholkuak jaso ditu. Argiñanok egin du hitzaurrea.

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Sozioekonomia gaiak, Iñaki Azkoaga komunikazio arduradunarekin
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Azkeneko Geltokia: hileta oharrak; zorion agurrak; eguneko oharrak...
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com* )
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Uda Giroan
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## telealbisteak

**ETB** > DENBORALDI BERRIA

# Aurkezle berriak izango dira gaurtik aurrera Euskal Telebistako albistegietan

ETBren ardatza albistegiak, gazteak eta kirola izango direla jakinarazi du Alberto Suriok, EITBko zuzendari orokorrak

**O.E.** > ARRASATE

Bilboko egoitzan egin zuten EITBko denboraldi berriko aurkezpena joan den egubakoitzean. Alberto Surio EITBko zuzendari orokorrak eta Miguel Angel Idigoras ETBko zuzendariak eman zuten aldaketen berri, besteak beste.

Albistegiak, kalitate handiko barne produkzioak, gazteendako euskarazko programazioa eta kirola izango dira Euskal Telebistaren oinarriak 2009-2010 denboraldian. Kulturako elkarrizketa, film eta arrakasta handiko telesailen alde ere egingo dutela esan zuten EITBko ordezkariek.

**AURKEZLE BERRIAK**

Albistegietan ere aldaketak ikusiko dira, bai, behintzat, aurkezleetan: eguerdiko *Gaur Egun* saioa Xabier Usabiagak eta Amaia Cayerok aurkeztuko dute; eta *Teleberri*, Afrika Baeta eta Igor Siguerok. Iluntzeko albistegia Aitziber Fernandezek aurkeztuko du euskaraz, (20:00etan hasiko da), eta Asier Odriozola eta Andrea Arrizabalagak, gazteleraz. Asteburuetan, Estibaliz Ruiz de Azua eta Iker Arrastio *Teleberri*-n izango dira eta Ander Arzak *Gaur Egune*-n.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PLANETARIUM BERRIA**

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak.**
Asteburu eta jai egunetako saioak:
12:00 eusk., 13:00 gazt., 15:30 fran., 16:15 gazt., 17:00 eusk., 18:00 gazt.
**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz.
**Itsua izar begiekin:** Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa

**IKUSKIZUN ETA ANIMAZIOAK**
**(ASTEBURU ETA JAIEGUNETAN, MUSEOKO SARRERAREKIN)**

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia.
**Planetarium Txikia:** 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten
**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera
**Eta gainera:** Segway-a, Fakirraren ohea, 1,2,3…matemagia!!, sumendiak, esperimentuak,etab.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

## zorion agurrak



ARETXABALETA
**Monika Beltran de Heredia Altube**
Irailaren 22an, 5 urte. Zorionak, sorgintxo! Patxo handi bat etxeko danon partetik, Alaitz, Eñaut, Manex eta Martin.



OÑATI
**Nerea Agirrebalzategi Lopez**
Irailaren 23an, 32 urte. Urte askotarako, prexioxa! Hasi ahorraitten zapatuko bazkaixa pagaitteko eh! Oso ondo pasatu eguna eta aprobetxau, 32 urte ez dia egunero beteten-eta!



ESKORIATZA
**Oihana Ezeiza Diez**
Irailaren 24an, 5 urte. (Argazkian ezkerrekoa) Zorionak, printzesa eta muxu pottolo bat ! Enaitz, Martxel, Eider, Alaitz eta June.



ARAMAIO
**Leire Vilches Beitia**
Irailaren 24an, 8 urte. Zorionak, potxola. Ondo pasatu zure urtebetetze eguna! Ainhoa, Uxue, aitatxo eta amatxo.



ARRASATE
**Oinatz Anduaga Estrada**
Irailaren 25ean, 2 urte. Zorionak, Oinatz, eta oso ondo pasatu zure egunian! Muxu handi bat etxekoen partetik.



OÑATI
**Julen Del Rio Zabaleta**
Irailaren 25ean, 17 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
**Nerian Perez**
Irailaren 25ean, 28 urte. Zorionak, Anpao! Espero dou tope disfrutetia zure urtiak, eta zain egongo gare bi patxo emuteko, eta zure kontu trago bat hartzeko. Muxu pilua gure atsuantzat.



ARRASATE
**Danel Hierro**
Zorionak, Daneltxo! Irailaren 25ean, 7 urte. Muxu handi bat Idoia eta Ionen partetik!



ARRASATE
**Gorka Aranbarri Duque**
Irailaren 26an, 12 urte. Zorionak Oihana eta gurasoen partetik.



ARRASATE
**Haritz Lafuente**
Irailaren 26an, 5 urte. Zorionak, guapo! Egun zoragarria izan dezazula opa dizugu zure guraso eta Ormaiztegiko familiak. Muxu handi bat!



BERGARA
**Martxel Olabarrieta Diez**
Irailaren 27an, 5 urte. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat! Ondo pasatu. Enaitz, Oihana, Eider, Alaitz eta June.



OÑATI
**Olaia eta Julen Otero Aiastui**
Irailaren 27an eta 28an, 14 eta 9 urte betetzen dituzte. Zorionak eta muxu handi bana aitatxo eta amatxoren partetik. Ah! Eta ondo pasatu Oñatin jaixak.



ARRASATE
**Mikel Arrieta**
Irailaren 27an, 90 urte. Zorionak, aiteita! Disfrutatu eta ondo ondo pasatu eguna, 90 urte ez die egunero betetzen-eta!



BERGARA
**Iñigo Agirre**
Irailaren 27an, 10 urte. Patxo handi bat etxekoen partetik.



ESKORIATZA
**Maren Markaide Alegria**
Irailaren 27an, 7 urte. Zorionak eta muxu potolo-potolo bat etxeko danen partetik! Paaa!



OÑATI
**Naroa Larrea Zubia**
Irailaren 28an, urtetxo bat. Zorionak, poxpolintxo! Ondo pasatu eguna etxeko guztien partetik.



ANTZUOLA
**Xuban Ganuza Rodriguez**
Irailaren 28an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat aitatxo, Antzuolako familia eta lagunen partetik. Ondo pasatu zure eguna.



OÑATI
**Ane Pelayo Osa**
Irailaren 28an, 4 urte. Zorionak printzesa! Ondo-ondo pasatu eguna eta muxu potolo asko etxeko danon eta batez be Iratiren partetik.



ARETXABALETA
**Izaro Hernandez Urzelai**
Irailaren 28an, 3 urte. Zorionak, Izaro! 3 urte bete dituzu, muxu potolo bat etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
**Mikel Jauregi Larrañaga**
Irailaren 29an, urtebetetzea. Familiakoen partetik patxo asko eta ondo pasatu eguna!



ARRASATE
**Izaro Herboso Madina**
Irailaren 29an, 3 urte. Zorionak, Izaro, familia guztiaren partetik. Patxo eta besarkada potoloa, maitia. Neskatilatxo.



ARRASATE
**Maitane Carmona Fernandez**
Irailaren 29an, 5 urte. Ondo pasatu zure urtebetzean eta muxu asko familiaren partetik.



OÑATI
**Nahia Eskarza**
Irailaren 29an, 2 urte. Zorionak familixako danon partetik eta bereziki muxu handi bat amatxoren partetik.



ELGETA
**Ainara Belamendia Elkoro**
Irailaren 29an, 10 urte. Zorionak! Muxu handi-handi bat eta urte askotarako.



ARAMAIO
**Iñaki Molero Altuna**
Irailaren 29an, 8 urte. Etxekoen partetik zorionak.



ARETXABALETA
**Jokin Larrinaga**
Irailaren 30an, 6 urte. Zorionak, pirata! Ondo-ondo pasatu zure seigarren urtebetetze eguna eta txokolate eta marrubizko muxuak familia guztiaren partetik, batez ere Ainhitz eta Jurgin partetik.

## ZORIONAK!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak Asteleheneko Goienkariaren bidez! Hiru bide dituzu zorion agurrak jartzeko:

**Internet bidez**
Goiena.net atariko Zorion agurren tartean sartu.
Aukeratu zein herritan gehitu nahi duzun eta eskatzen diren datuak bete.

**e-postaz**
Mezu bat bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera.
Honako datuak emanez: Izen abizenak, herria, urteak noiz betetzen dituen, zenbat urte betetzen dituen eta nahi duzun mezua.

**Edo etor zaitez Goienako ordezkaritza batera.**

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik argitaratuko ditugu. Ordu horretatik aurrera jasotakoak hurrengo astean aterako ditugu.

## kuxkuxeroa



Arantzazu Ezkibel

# Batzuk bukatu, beste batzuk hasi!

Kuxkuxian ibiltteko denborarik ez dot euki aste bukaeran; baina, hainbat txutxumutxun berri euki dot, eta ondorengo lerrotan kontauko dotzuet.

Oñatin, jaixak hasi besterik ez dittuzte egin. Zapatu arratsaldian, esaterako, performance saiua egin ebein Santa Lutziako zelaixan. Artzain txakur txapelketa irudikatu gura eben artista batek zortzi artzain, txakurrak eta ardixak batu zittuen Santa Lutzian. Gainera, txakurrari buruan kamaria lotu otzan, baina itxuria kamaria ez eben

**"Kataluniako eskubaloi jokalarixak oso ondo pasau ei eben Oñatiko giruan"**

oso gustuko txakurrak eta izorratu in eben.

Bestalde, Oñatira eskubaloian jokaketara etorri dian kataluniarrak oso gustora ibilli diala enterau gara. Gaztienak Oñatiko gau giruan murgildu... eta ahaztu hotelera igotia! Goizian goiz mendizalen batek igo ei eben jokalarin bat Soraluze ostatura.

Udanan, ostera, kotxian gora eta behera ibili zan **Gerardo Puente** ETBko kazetarixa. 25 urte daroia karrerak jarraiketan, eta dagoeneko ezaguna da motorzalien artian. Batek baino gehixauk agurketan eben Puente bide ertzetik. Berak esan zozkun, askotan izena aldaketan xaueila: "ni *hijo* izaten naiz, eta aldamenekoa *puta*". Ezin inoiz danon gustukua izan!

## HARTU PARTE!

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

**Tarte hau zure txokoa da, irakurle.**

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: *astelehena@goiena.com*

Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## berri zakua

**Lehenengo Skate jaia Arrasaten.** San Andres auzoko Bedoñabe eskolako patioa skate pista probisional bilakatu zuten zapatuan. AEDk eta Txatxilipurdik antolatutako lehen Skate jaiari harrera ona egin zioten herrian; izan ere, gazte mordoa hurbildu zen patinetearekin. Gainera, patinak, monozikloak eta bestelakoak erabili zituztenik ere izan zen. AEDk eta Txatxilipurdik Debagoienean zale dezente dituen zaletasuna eta euskara uztartu eta, hala, gazteei aisialdia euskaraz eskaintzeko aukera eskaini dute. Hanka-paloetan ibiltzen ikasteko aukera ere izan bazen ere, gazteek gurago izan zuten patinetean ibili.





**Aranzadi Ikastolaren eguna ospatu zuten zapatuan.** Goizetik iluntzera arte iraun zuen ospakizunak. Bazkariaren aurretik, goizean, Kilometrotako ibilbidea egin zuten hainbat irakaslek, ikaslek eta gurasok. San Martzialen txorizoa eta salda hartu eta behera egin zuten, ikastolako patioan gertu zeukaten bazkariaz gozatzeko. Askotariko ekintzak izan zituzten gainera, umeek: puzgarriak, sokatira eta bestelako jolasak, baina agian interesgarri eta bitxiena eurendako, amantalak ipini eta irakasleekin batera egin dituzten esperimentuak. 300 lagunetik gora elkartu ziren ikastolako eguna ospatzeko, eta eguraldia lagun, egun polita igaro zuten Aranzadin.

## jaiotakoak



**Nerea Bellanco Saenz**
Arrasate > 3,400 kilo. Irailaren 19an. Gurasoak: Eider (Arrasate) eta Jose Luis (Arrasate). Argazkian, Nerea jaioberria, sehaskan lo.



**Sara Goiena Preciado**
Arrasate > 3,900 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Mari Carmen (Elorrio) eta Jesus (Elorrio). Argazkian, Sara jaioberria, lotan aitarekin.



**Nahia Agirreurreta Fernandez**
Arrasate > 3,370 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Eli (Arrasate) eta Sergio (Arrasate). Argazkian, Nahia jaioberria, amarekin.



**Markel Lazkoz Conde**
Bergara > 3,000 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Maider (Bergara) eta Inaki (Bergara). Argazkian, Markel jaioberria, sehaskan lo.



**Hugo Gil Hoyas**
Oñati > 3,150 kilo. Irailaren 18an. Gurasoak: Nuria (Oñati) eta Pello (Oñati). Argazkian, Hugo jaioberria, sehaskan lo.



**Izaro Iparragirre Amozarrain**
Eskoriatza > 3,400 kilo. Irailaren 22an. Gurasoak: Rosalia (Arrasate) eta Santi (Eskoriatza). Argazkian, Izaro jaioberria, Oihana lehengusinarekin.



**Unax Urtubi Cabello**
Aretxabaleta > 3,400 kilo. Irailaren 23an. Gurasoak: Silvia (Arrasate) eta Xabier (Arrasate). Argazkian, Unax jaioberria, sehaskan.



**Aimar Iturbe Murgiondo**
Aretxabaleta > 4,270 kilo. Irailaren 22an. Gurasoak: Amaia (Arrasate) eta Aitor (Aretxabaleta). Argazkian, Aimar jaioberria, aitarekin.



**Martin Alzola Altzerreka**
Bergara > 3,740 kilo. Irailaren 22an. Gurasoak: Arantzazu (Bergara) eta Xabier (Bergara). Argazkian, Martin jaioberria, Lander anaiarekin.



**Ilargi Larral Axpe**
Oñati > 2,400 kilo. Irailaren 22an. Gurasoak: Amaia (Oñati) eta Iñaki (Oñati). Argazkian, Ilargi jaioberria, Iker osabarekin.



**Jon Zubia Carrasco**
Arrasate > 3,210 kilo. irailaren 24an. Gurasoak: Susana (Arrasate) eta Iker (Arrasate). Argazkian, Jon jaioberria, sehaskan lo.



**Lur Olabarri Alonso**
Durango > 3,420 kilo. Irailaren 23an. Gurasoak: Ibane (Durango) eta Gaizka (Arantzazu-Bizkaia). Argazkian, Lur jaioberria, gurasoekin.



**Oier Fernandez Rodriguez**
Bergara > 2,850 kilo. Irailaren 23an. Gurasoak: Rosa (Bergara) eta Juankar (Bergara). Argazkian, Oier jaioberria, aitarekin.

BABESLEA



Goienkaria ASTELEHENEKO
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-09-28

**Itxaro Zubilaga** > Kazetaria

# "Goizero 15 egunkari irakurtzen ditugu lanerako"

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

**Euskal Telebistako saiorik betenanoetako baten aspalditik dihardu lanean Zubillagak. *Pásalo* saioaz galde eginda, lanaren xarma jendearekin harremanean eta "kalean" egiten den lanean dagoela dio.**

***Pásalo* esan daiteke dagoeneko badela ETBko saio beteranoa eta baita ere "klasikoa". Arrakasta zertan datza?**

Eguneroko saioa denez, egunero hitzetik hortzera darabilzkigun gaiak lantzen saiatzen gara, eta kanpokoak direnean, gugana ekartzen. Beharbada, hor egon daiteke arrakasta izatearen funtsa.

**Gai aukeraketaz arduratzen zara zeu. Nola erabakitzen da zeintzuk diren interesa pizten duten gaiak?**

Egunero bi koordinatzaile goizeko 8etan joaten gara egunkariak irakurtzeko, 15 bat guztira. Hor gaien aukeraketa bat egiten da; ondoren, zuzendariak, gidoilariak eta errealizatzailea datozenean guztion artean aukeratzen ditugu eguneko gaiak. Jakina, azken hitza beti zuzendariek daukate.

**Nolakoa da eguneroko lana '*Pásalo*'-n?**

Erredakzioan giro polita dago. Urte asko daramazkigu batera eta ondo ezagutzen dugu elkar. Batzuetan, tokatzen zaizun gaien arabera, estututa ibil zaitezke baina. Kontuan hartu behar da erredaktoreak lortzen dituela elkarrizketatuak, eta berak montatzen duela bideoa. Dena goizean zehar egin beharra dago, arratsaldeko 4etan, materiala aireratzeko moduan izateko. Jendea konbentzitu, eurekin elkartu elkarrizketa egiteko; ondoren, erredakzioko editai gelan montatu… Hori da egunerokoa.

**Zein motako erreportajeak dituzu gogokoen?**

Niri kalera ateratzea asko gustatzen zait eta benetan gozatu kirolarekin zerikusia duten gaiekin egiten dut. Gure programan asko ez dira lantzen, baina aukera dudanean, hortxe egoten naiz. Gairen batek marka utzi? Ez dakit, baina genero indarkeriagatik norbait hiltzen dutenean, eta senitarteko bat elkarrizketatzea tokatzen zaizunean, ez da ondo pasatzen. Beti erreportari lanetan aritu izan naiz eta horrelaxe jarraitzea nahiko nuke. Platoa baino, kalea gehiago gustatzen zait.

**Saioan gonbidatuak polemikan berotu arren gero beti esaten da harremana bikaina dela…**

Orohar harreman ona daukate. Hala ere, esan behar dut kontertulio batzuk elkarrekin juergan ez ditudala imaginatzen.

**TEST-A**

**Jaioterria:** Aretxabaleta. **Adina:** 38 urte. **Ikasketak:** Informazio Zientzietan Lizentziaduna. **Kirolaria zara?** Kirola ikusteko eta egiteko gustatzen zait. Bizikleta, igerian ibiltzea eta mendian aritzea asko gustatzen zait. **Film bat:** *Slumdog millionaire*. **Liburu bat:** Stieg Larssonen *Millenium* trilogian nago buru-belarri. **Kazetari izango ez bazina, zer?:** Heziketa fisikoan lizentziatuta, eskolak ematen edo kiroldegiren baten…



**BIZIKLETA** Zubillagaren zaletasun handienetakoa da. JOSETXO ARANTZABAL

## ai, ene!



### Burka-bikinia

Gaur egun, badakizue: kontu handiz ibili behar da inor ez mintzeko, politikoki zuzena izateko. Zer esan, zer jantzi, nor iraindu... Uda badoa, baina hurrengorako hemen duzue herrialde musulmanetan erabiltzeko moduko bikinia.

http://tinyurl.com/yeeho8z

## biharamuna

**Juan Kruz Mendizabal**

### Ibilgailu iraunkorra

Badira hiru urte Bergarara iritsi nintzela eta oraindik harriduraz betetzen nau Bergaran bakarrik ikusten dudan gertakizun bat. Egunero, goizero gertatzen dena, guztion begien aurrean, udaran, nahiz negu partean, hotz edota bero gure Bergarako haurrek garraio tresna bezala erabiltzen duten PATINETEA!... Moda guztiak gainditu jolas tresna ez, baizik garraiorako erabiltzen den oparia da. Hori baigurasoek egindako oparia amortizatzea!, horrek bai eusten dituela garaiak eta modak. Zergatik ikusten ditugu hemen bakarrik batetik bestera joateko patineteak? Etxetik eskolara, plazatik katekesira... joaten dira haur eta gaztetxoak punta batetik bestera jolas tresna ahaztuz eta garraiorako den jolasa horretarako erabiliz. Asko jabetu dira eta kanpokoak harriduraz galdetzen digute honen berri. Behar bada, norbaitek ikerketa soziologikoa egiteko une aproposa du batetik bestera ibilbide motzetarako erabili daitekeen patineteak ikustean.



Bideko segurtasun-arauetan dabiltzanek hementxe dute gune aproposa bertara hurbiltzeko eta goitik-behera eta zeharka haurrak patinetean ikusteko. Neuri oraindik harridura sortzen dit! Zergatik ote?

## eguraldia



| MAXIMOA | MINIMOA |
|---|---|
| +23 | +12 |

Aldaketarik ez. Zeruan hodeiak eta ostarteak tartekatuko dira eta egunaren erdiko orduetan ostarte zabalak ikusiko ditugu.

www.euskalmet.net





**Euskal soinu eta irudiak zure eskura!**

SOINUAK: Bidali, GIPE hutsunea KODEA
ABESTIAK: Bidali, GIPP hutsunea KODEA
LOGOAK: Bidali, GIPL hutsunea KODEA
JOKOAK: Bidali, GIPJ hutsunea KODEA

5767 zenbakira

SMS bakoitzeko: 1,2 € + BEZa

smsoinu
Poltsikoko telefonorako euskal soinu eta irudiak

**ABESTIAK** POLIFONIKOAK (2 sms)
Abestiaren izena (Abeslaria) | KODEA

Pop-Rock
Aitormena (Hertzainak) | AITORMENA
Aizkolari (Kortatu) | AIZKO
Amore amore (Karidadeko benta) | AMORE
Askatasun egarriz (Lin Ton Taun) | ASKATA
Begiak okertuta (Lin Ton Taun) | BEGIAK
Bi Minutuero (Hertzainak) | BIMINU
Dub manifest (Fermin Muguruza) | DUB
Egunero (Hertzainak) | EGUNERO
EH Sukarra (EH Sukarra) | SUKAR
Ellos dicen mierda, nosotros amen (La Polla) | ELLOS
Enamorado de la muerte (RIP) | ENAMO
Entzuidazu (Aterking's) | ENTZU
Etorkizuna (Etsaiak) | ETORKI
Ezer ez da betiko (Ken7) | EZER
Gora Herria (Negu Gorriak) | GORA
Hator Bel-Air (Bide Ertzean) | BELAIR
Haizea (Ken7) | HAIZEA
Hegal egiten (Itoiz) | HEGAL
Ikusi (Delirium Tremens) | IKUSI
Ilargia (Ken 7) | KEN
Inpernuen ate joka (Gatibu) | INPER
Jokin Uraini Hitzak (Bide Ertzean) | JOKIN
Kaixo (Urtz) | KAIXO
Lau Teilatu (Itoiz) | ITOIZLAU
Laztana (Latzen) | LAZTA
Lotuta egon arren (Kokein) | LOTUTA
Loretxoa (EXKIXU) | LORE
Marea Gora (Itoiz) | MAREA
Musturrek sartunde (Gatibu) | MUSTURREK
Nicaragua (Kortatu) | NICA
No time for love(Hertzainak) | NOTIME
Salve (La Polla) | SALVE
Sarri Sarri (Kortatu) | SARRI
Sorginen leizean (Exkixu) | SORGIN
Txatxo (Zarama) | TXATXO1
Txus (La Polla) | TXUS

Folk
Arratsalde honetan (Sorotan Bele) | SOROTAN
Bai euskarari (Pantxoa) | BAI1
Bakezaleak (Anje Duhalde) | BAKE
Bizkaia Maite (Benito Lertxundi) | BIZKAIA
Eperrak (Anje Duhalde) | EPERRAK
Euskal Herrian Euskaraz (Oskorri) | EUSKAL
Euskaldun berriaren balada (Oskorri) | EUSKALDUN
Ez da posible (Ruper Ordorika) | POSIBLE
Furra Furra (Oskorri) | FURRA
Galiziara noa (Oskorri) | GALIZIARA
Gernikako Arbola (Gontzal Mendibil) | GERNIKA1
Haika Mutil (Mikel Laboa) | HAIKA
Izarren hautsa (Xabier Lete) | IZARREN
Lepoan hartu ta (Pantxoa/Peio) | LEPOAN
Marinelaren zai (Sorotan Bele) | MARINE
Nere herriko neskatxa maite (B.Lertxundi) | NERE
Non geratzen den denbora (Mikel Urdangarin) | NON
Oi! Ama Euskal Herria (B.Lertxundi) | OIAMA
Tirauki (Oskorri) | TIRA
Txatxamatxalinatxu (Mikel Urdangarin) | TXATXA
Txoria txori (Mikel Laboa) | TXORIA
Zaindu maite duzun hori (Ruper Ordorika) | ZAINDU

SOCIEDAD GENERAL DE AUTORES Y EDITORES

**LOGOAK** (2 sms)
KODEA
ZINEMA · AIZKORAK · GLOBUAK · EGUZKILORE3 · NIREKIN · SORGINGA

**OHARRAK**
**1.BATERAGARRITASUNA:** Begiratu zure poltsikoko telefonoa bateragarria den eskaintzen ditugun produktuekin, helbide honetan: **www.smsoinu.com/bateragarri**
Bertan jasoko duzu beharrezko duzun informazio guztia.
**2. BALDINTZAK:** Edukiak eskuratzeko, beharrezkoa da GPRS sistema aktibatuta izatea. GPRS sistema aktibatzeko, jar zaitez zure hornitzailearekin harremanetan. Alta ematea doan da eta Kb jaitsiera bakarrik ordaindu beharko duzu. Kasu guztietan deia eta GPRS sisteman alta ematea doan dira.
* Euskaltel: deitu 900 84 02 00 telefonora./ * Vodafone: deitu 123-ra./ * Movistar: deitu 609-ra.
**3. ZALANTZAK:** Edozein zalantza duzula, jarri gurekin kontaktuan: **smsoinu@smsoinu.com** / edo deitu **902 01 21 48** telefonora.
**4. PERTSONALIZAZIOAK:** Zure neurrira egin ditzakegu abesti eta logoak. Webgune honetan kaleratu eta erabiltzaileek eskura dezatela nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan eta deitu 902 01 21 48 telefonora.